

# Estatutu Sozialak

2025Ko ekainaren 2an  
Delegatuen Batzar  
Nagusian onetsiak

<b>I KAPITULUA. IZENA, HELBURUA, IRAUPENA ETA HELBIDEA.</b> .....	<b>4</b>
1. Artikulua. Izena eta lurralde-eremua.....	4
2. Artikulua. Xedea eta modalitateak.....	4
3. Artikulua. Helburu komunitarioak.....	4
4. Artikulua. Definizio operatiboa.....	4
5. Artikulua. Iraupena.....	5
6. Artikulua. Sozietatearen egoitza.....	5
7. Artikulua. Hizkuntza ofizialak.....	5
8. Artikulua. Estatutuen aldaketa.....	5
9. Artikulua. Dokumentazio soziala eta kontabilitatekoa.....	5
<b>II. KAPITULUA. BAZKIDEENA.</b> .....	<b>7</b>
10. Artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak.....	7
11. Artikulua. Onartzeko baldintzak.....	7
12. Artikulua. Onartzeari buruzko erabakia.....	7
13. Artikulua. Onarpena ukatzearen aurkako aurkaratzeak.....	8
14. Artikulua. Onartze-erabakiaren aurkaratzeak.....	8
15. Artikulua. Eskubideen eta betebeharren hasiera.....	8
16. Artikulua. Erantzukizuna.....	8
17. Artikulua. Bazkideen betebeharrak.....	8
18. Artikulua. Bazkideen eskubideak.....	9
19. Artikulua. Informazio-eskubidea.....	10
20. Artikulua. (Kenduta).....	11
21. Artikulua. Bazkideen eskubideak etetea.....	11
22. Artikulua. Bazkidearen baja.....	11
23. Artikulua. Bajaren ondorio ekonomikoak.....	12
24. Artikulua. Nahitaezko baja.....	14
25. Artikulua. Diziplina-arauak. Hutsegite sozietarioak/lanekoak.....	14
26. Artikulua. Hutsegite sozietario eta lanekoaren kalifikazioa.....	14
27. Artikulua. Hutsegite sozietario eta lanekoengatiko zehapenak.....	18
28. Artikulua. Zehapen-prozedurak.....	19
29. Artikulua. Kanporatzea.....	20
30. Artikulua. Lan-bazkideen probaldia.....	21
31. Artikulua. Gizarte segurantzako erregimena.....	21
32. Artikulua. Lan-bazkideen barneko antolaketa funtzionala.....	21
33. Artikulua. Bazkide kontsumitzaileen barneko antolaketa funtzionala.....	22
34. Artikulua. Bazkide ez direnei saltzea.....	23
34 Bis artikulua. Iraupen mugatuko bazkidea.....	23
<b>III. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN EKONOMIA-ARAUBIDEAZ.</b> .....	<b>25</b>
35. Artikulua. Kapital soziala. Xedapen orokorrak.....	25
36. Artikulua. Kapital sozialerako nahitaezko ekarpenei buruzkoa.....	25
37. Artikulua. Kapital sozialerako nahitaezko ekarpenei buruzkoa.....	26
38. Artikulua. Kooperatibako hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako nahitaezko ekarpena.....	27
39. Artikulua. Ekarpenei sozialen interesak.....	28
39 Bis artikulua. Funtz propioen parte diren mendeko finantza ekarpenak ordaintzea.....	29
40. Artikulua. Alderdi sozialen erabilgarritasuna.....	30
41. Artikulua. Sarrerako kuotak.....	30
42. Artikulua. Ekitaldi ekonomikoa.....	30

43. Artikulua. Emaidzen zehaztapena. . . . .	30
44. Artikulua. Nahitaezko funts sozialetarako esleipena. . . . .	30
45. Artikulua. Soberakin erabilgarrien aplikazioa. . . . .	31
46. Artikulua. Galeren egozpena. . . . .	31
47. Artikulua. Balantzearen eguneratzea. . . . .	32
47. bis artikulua. Solidaritate-funtsa . . . . .	32

#### **IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETARI BURUZKOA. . . . . 33**

48. Artikulua. Organo sozialak eta zuzendaritza. . . . .	33
49. Artikulua. Delegatuen batzar nagusia. . . . .	33
50. Artikulua. Delegatuen batzar nagusiaren osaera. . . . .	34
51. Artikulua. Delegatuen batzar nagusirako deialdia. . . . .	34
52. Artikulua. Delegatuen batzar nagusiaren funtzionamendua. . . . .	36
53. Artikulua. Batzar nagusiaren erabakien aurkaratzea. . . . .	37
54. Artikulua. Prestamen batzarrak. . . . .	38
55. Artikulua. Kontseilu errektorearen izaera eta eskumena. . . . .	39
56. Artikulua. Kontseilu errektorearen osaera. . . . .	40
57. Artikulua. Kontseilu errektorearen funtzionamendua. . . . .	41
58. Artikulua. Kontseilu errektorearen batzordeak. . . . .	42
59. Artikulua. Kontseilu soziala. . . . .	44
60. Artikulua. Kontseilu sozialeko batzorde delegatuak. . . . .	45
61. Artikulua. Kontseilu kontsumerista. . . . .	45
62. Artikulua. Batzorde kontsumerista lokala. . . . .	46
63. Artikulua. Zuzendaritza nagusia izendatzea eta kargutik kentzea. . . . .	46
64. Artikulua. Zuzendaritza nagusiaren betebeharrak buruz. . . . .	46
65. Artikulua. Zuzendaritza kontseilua. . . . .	46
66. Artikulua. Errektoreen eta zuzendaritzaren ezgaitasunak eta bateraezintasunak. . . . .	47
67. Artikulua. Kooperatibarekiko interes-gatazka. . . . .	47
68. Artikulua. Kontseilu errektoreko eta zuzendaritza nagusiko kideen betebeharrak eta erantzukizuna. . . . .	48
69. Artikulua. Erantzukizun-akzioak. . . . .	49
70. Artikulua. Kontseilu errektorearen erabakien aurkaratzea. . . . .	49
71. Artikulua. Jagoletza batzordea. . . . .	50
72. Artikulua. Kanpoko auditoria. . . . .	51
73. Artikulua. Errekurtso batzordea. . . . .	51
74. Artikulua. Kontseilu errektorea, jagoletza batzordea eta errekurtso batzordea berritze prozedura. . . . .	52
75. Artikulua. Letradu aholkularia. . . . .	53
76. Artikulua. Kooperatiba-elkarteekiko edo gainegiturako erakundeekiko harreman juridikoen oinarriko elementuak. . . . .	53

#### **V. KAPITULUA. BAT-EGITEA ETA ZATIKETA, ERALDAKETA, DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA. . . . . 55**

77. Artikulua. Bat-egitea eta zatiketa. . . . .	55
77 Bis artikulua. Eraldaketa. . . . .	55
78. Artikulua. Desegiteko arrazoiak. . . . .	55
79. Artikulua. Likidazioa. . . . .	56
80. Artikulua. Kaudimengabezia-egoera. . . . .	56
81. Artikulua. Likidatzaileen eskumena eta hartzeko sozialaren esleipena. . . . .	57
82. Artikulua. Likidazioko azken balantzea. . . . .	57
83. Artikulua. Amaitzea. . . . .	57
84. Artikulua. Konkurtsoa. . . . .	57
Xedapen gehigarria. . . . .	58
Lehen Xedapen Iragankorra. . . . .	58

# I Kapitularia.

## IZENA, HELBURUA, IRAUPENA ETA HELBIDEA.

### 1. artikulua. Izena eta lurralde-eremua.

Eroski, S. Coop. izenarekin Kontsumoko Kooperatiba bat dago eratua, eta berorren jardun-eremu nagusia Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurraldea izango da, bere Estatutuak Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 11/2019 Legea egokituz.

### 2. artikulua. Xedea eta modalitateak.

Helburu Soziala zera da: bazkideei eta beraiekin bizi diren familiartekoei ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea, zuzenean edo zeharka, ahalik eta kalitate, informazio eta prezioko baldintzarik onenetan. Ondasun eta zerbitzu horiek beste hirugarren batzuei eros diezazkieke Kooperatibak, ala berak produzitu.

Modalitateak hauek izango dira:

- a) Kontsumo eta erabilerako artikuluez, jantziez, altzariez, lokomozioaz, eta etxeko ekonomiari dagozkion bestelako elementuez hornitzea.
- b) Hainbat zerbitzu: finantzaketa edo aseguruetakoa, energetikoa, jatetxeak, garraioak, ospitaleratzeak eta antzeko beste batzuk.
- c) Kultura-garapenerako hornidurak, zerbitzuak, eta jarduerak.

Ez dira hemen sartzen gauzatu ahal izateko legeak eskakizun bereziak ezartzen dizkien jarduera guztiak, sozietate honek eskakizun horiek betetzen ez dituenean.

### 3. artikulua. Helburu komunitarioak.

Halaber, Kooperatibak, Kontsumitzaile-elkarte gisa, kontsumitzaileen interes legitimoak hobeto sustatzeko eta defendatzeko behar diren jarduerak garatuko ditu, bereziki kontsumitzaile horien informazioari eta formazioari begira. Gainera, ingurunearekiko solidaritatearen eta konpromisoaren inguruko jarduketak sustatuko ditu.

Kooperatibak funtsak bidera ditzake Eroski Fundaziora edo beste erakunde batzuetara, betiere funts horiek helburu komunitarioetarako erabiltzen badira.

Azkenik, erakundea lanpostuak sortzen ahaleginduko da, bere baitan lan-erakunde kooperatiboa eratzuz.

Aurreko guztia bete ahal izateko, sozietateak beste batzuekin lankidetzaz- eta partaidetzaz-hitzarmenak egingo ditu.

### 4. artikulua. Definizio operatiboa.

Eroski, S. Coop.en egiturak bi komunitate ditu oinarrian: bazkide kontsumitzaileak eta lan-bazkideak. Bi komunitate horiek saiatu egiten dira Kooperatibaren helburu soziala betetzen, eta horretarako elkarrekin hartzen dituzte Kooperatibari dagozkion arazo orokorreki buruzko erabakiak, eta haien jarduera espezifikoak honela zehazten dute:

- Bazkide kontsumitzaileen komunitatea, bereziki, bazkideen prestakuntzaz eta defentsaz arduratzen da arlo kontsumeristan.

- lan-bazkideen komunitatea, berriz, enpresaren produkzio-bideak eta eguneroko gai praktikoak autonomia osoz kudeatzeaz arduratzen da, betiere politika orokorrak zehaztutakoaren arabera.

## **5. artikulua. Iraupena.**

Eroski S. Coop.en iraupenak ez du epemuga jakinik.

## **6. artikulua. Sozietatearen egoitza.**

Egoitza soziala Elorrión (Bizkaian), Etxebarrako San Agustin Auzoa z.g.-an kokatzen da, eta udalerri berean lekuz alda daiteke Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu, Estatutuen aldaketa-izapiderik egin gabe, baina indarrean dagoen Kooperatiben Legeak ezarritakoak betez.

## **7. artikulua. Hizkuntza ofizialak.**

Sozietatea ezarrita dagoen autonomia erkidego bakoitzean ofizialak diren hizkuntzak izango dira Kooperatibaren hizkuntza ofizialak. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean, gaztelaniaz gain, euskara hizkuntza ofiziala izango da, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, pixkanaka ezartzeko.

## **8. artikulua. Estatutuen aldaketa.**

Bat. Estatutuen aldaketa Batzar Nagusiak erabaki beharko du, honako eskakizun hauek betetzen badira:

- a) Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiko Delegatuen % 10ak edo 500 bazkidek proposamen idatzia aurkeztea, arrazoiak xeheki zehaztuz.
- b) Deialdian behar bezala agertzea zein diren aldatu beharrekoak.
- c) Deialdia egiterakoan, proposatutako aldaketa eta haren inguruko txostena jasotzen duen testu osoa bazkide eta asoziatu guztiek egoitza sozialean irakurtzeko duten eskubidea aipatzea.
- d) Batzar Nagusiaren erabakia bildutakoan eta ordezkatuaren botoen bi hereneko gehiengoaz hartzea.
- e) Sozietatearen izena edo helbidea edo helburua aldatzeko erabakia, gainera, Bizkaiko lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean iragarriko da, inskribatu aurretik.  
Erabakia eta onetsitako testua eskritura publikora jasoko da, eta Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

Bi. Kooperatibaren izaera aldatu nahi denean, erabakiaren aldeko botorik eman ez duten bazkideek Sozietatetik bereizteko eskubidea izango dute, eta haien baja justifikatuztat joko da. Bazkide horiek eskubide hori gauzatu ahal izango dute, Kooperatiben Erregistroan erabakia inskribatzen denetik hilabetea bete arte.

## **9. artikulua. Dokumentazio Soziala eta kontabilitatekoa.**

Bat. Beste lege batzuetan edo xedapen berezietan idatzitakoaren kalterik gabe, Kooperatibak ordenan eta egunean izango ditu liburu hauek:

- a) Bazkideen Erregistro Liburua, bat kontsumitzaileentzat eta beste bat langileentzat.
- b) Kapital Sozialerako Ekarpenen Erregistro Liburua.
- c) Batzar Nagusiaren, Kontseilu Errektorearen, Errekurtsio Batzordearen eta Prestamen Batzarretako Akta Liburuak.

Bi. Aurreko apartatuan aipatutako liburu guztien eginbideak horri buruz indarrean dauden Legeen arabera gauzatuko dira, eta, Kooperatibaren gainerako dokumentuekin batera, Kontseilu Errektorearen ardurapean, zaintzapean eta erantzukizunpean egongo dira. Kontseilu Errektoreak gorde egin beharko ditu, gutxienez, azken akta edo idazpena transkribatu zenetik bost urtez, edota bertan jasotzen diren eskubide edo betebeharrak iraungi arte.

Hiru. Kooperatibak nahitaez eguneratu beharreko kontabilitate-liburuak hauek dira:

- a) Inbentarioen eta Balantzeen Liburua.
- b) Liburu Egunkaria.
- c) Jarduera dela-eta, aplikatzekoa den legeria bereziak ezartzen dituen liburuak.

Lau. Euskadiko Kooperatiben Legearen 71. artikuluan kontabilitatea eramateko moduari buruz xedatutako guztia aplikatuko da.

## II. Kapituluua.

### BAZKIDEENA.

#### **10. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak.**

Bazkide izan ahalko dira:

- a) Jarduteko behar adina gaitasun izanik, beraien zein familiakoen kontsumorako ondasunak eta zerbitzuak kalitate, neurri, aukera, informazio eta preziorik onenean eskuratu nahi dituzten pertsona fisikoak.  
Ondore guztietarako, familiakotzat hartuko dira ahaidetasunezko, mendekotasunezko edota horretarako baliozkoa eta behar adinakoa den beste loturaren bat izanik, etxe berean edo elkarrekin komunitate bakarrean bizi diren pertsona guztiak.
- b) Eroski, S.Coop.eko langileak, lan-bazkide gisa.
- c) Bezero laguntzaileak.

#### **11. artikulua. Onartzeko baldintzak.**

Bat. Bazkide kontsumitzaile izan nahi duten pertsona fisikoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Adin nagusikoa izatea.
- b) Onartzeko eskaera egitea, Kontseilu Errektorearen Lehendakaritzari zuzendutako idazki bidez.
- c) Ezarritako zenbatekoa ordaintzea, eta Estatutu hauetan eta indarrean dauden gainerako akordioetan aipatzen diren ekarpenei eta erantzukizunei buruzko konpromisoak onartzea, onartze-idazkian.

Bi. Langileak lan-bazkide gisa onartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea.
- b) Ezarritako probaldia gainditzea; probaldiak irauten duen bitartean, Kooperatibak eta bazkidegaiak haien arteko harremana alde bakarreko erabakiz zehaztu ahal izango dute.  
Lan-bazkideentzat probaldia 6 hilabetekoa izango da, baina Zuzendaritza-mailakoentzat, goi-mailako eta erdi-mailako exekutiboentzat, 18 hilabeteko epea ezartzen da. Halaber, nahi duten bazkidegai guztiek modalitate hori har dezakete. Aipatutako epeak murriztu edo deuseztatu ahal izango dira, bi aldeek hala adosten badute.
- c) Ezarritako zenbatekoa ordaintzea, eta Estatutu hauetan eta indarrean dauden gainerako akordioetan aipatzen diren ekarpenei, baldintza soziolaboralei eta bestelako erantzukizun osagarriei buruzko konpromisoak onartzea.

#### **12. artikulua. Onartzeari buruzko erabakia.**

Bat. Bazkide kontsumitzaile berriak onartzeko eskaera Kontseilu Errektoreari zuzenduko zaio, idatzi bidez, eta hark, eskaera hartzen duenetik gehienez ere hirurogei eguneko epean, onartu ala ez onartu erabakiko du. Eskaera oro onetsia izan dela ulertuko da, baldin eta epe hori iragan ondoren ez bada Kontseilu Errektorearen ebazpenaren berririk izaten.

Lan-bazkideak onartzeko, behin probaldia iragan eta Zuzendaritzak aurkeztutako txostena kontuan izanez, Kontseilu Errektoreak berak erabakiko du bere gaitasunari buruz. Ez onartzeko erabakia arrazoitu egin beharko da.

Bi. Onarpena ezingo da onartu edo ukatu ezein motatako diskriminazioa eragiten duen arrazoi batengatik.

### **13. artikulua. Onarpena ukatzearen aurkako aurkaratzeak.**

Bat. Bazkide gisa ez onartzeko erabakia errekurritu ahal izango da Errekurtso Batzordearen aurrean, jakinarazpena jasotzen denetik hogeit eguneko epean edo aurreko Artikuluan aurrez ikusitako epea bete eta gero.

Bi. Errekurtsoa Errekurtso Batzordeak erabaki beharko du hogeita hamar eguneko epean, eta nahitaezkoa izango da interesduna aldez aurretik entzutea.

### **14. artikulua. Onartze-erabakiaren aurkaratzeak.**

Bat. Kooperatibako bazkideek (500 badira) bazkide bat onartzeko erabakia aurkara dezakete Errekurtso Batzordearen aurrean eta aipatutako erabakia argitaratzen denetik hamar eguneko epean.

Bi. Errekurtso hori hilabete baino gutxiagoko epean ebatzi beharko da.

Hiru. Bazkide-izaera eskuratzea etenda geldituko da, onarpena aurkaratzeko epea bete arte, eta aurkaratuko balitz, horri buruzko ebazpena ematen den arte.

### **15. artikulua. Eskubideen eta betebeharren hasiera.**

Onartutako bazkidearen eskubideak eta betebeharrak Kontseilu Errektorearen erabakiaren aurkaratze-epea bete eta gero edo Errekurtso Batzordeak horri buruz ebatzi eta gero hasiko dira eragina izaten.

### **16. artikulua. Erantzukizuna.**

Bazkideen erantzukizuna Kooperatibaren Kapital Sozialerako nahitaezko eta borondatezko ekarpenak egitera mugatzen da. Erantzukizun horrek izaera mankomunatu sinplea du.

### **17. artikulua. Bazkideen betebeharrak.**

Hauek dira bazkideen betebeharrak:

- a) Ekitaldi sozialetan eta bereziki Informazio Batzarretan eta Prestamen Batzarretan parte hartzea, eta gobernu-organismoek balio osoz hartutako erabakiak onartzea, 22. artikuluaaren hirugarren apartatuan jasotzen denari kalterik egin gabe.
- b) Kooperatibaren jardueretan eta zerbitzu kooperatiboetan parte hartzea, gutxienez urtean behin bazkide kontsumitzaileentzat Kapital Sozialaren gutxieneko ekarpenaren pareko zenbatekoa duen erosketa bat eginez, eta lan-bazkideentzat legeriak ezartzen duen gutxieneko lanaldia betetzea.  
Bazkideek kooperatibaren jarduera eta zerbitzuetan parte hartu ahal izango dute zuzenean edo Eroski S.Coop.ekin elkarlaneko harremana duten eta Helburu Sozialarekin zerikusia duten beste erakunde batzuetan parte hartuz. Beste erakunde horietan parte hartzen duten bazkideak gutxiengoa izango dira Kooperatiban, arrazoi ekonomikoen, antolaketazkoen, produktiozkoen edo ezinbestekoen erruz enpresan krisialdirik ez badago behintzat.

- c) Jakinarazten zaizkion Kooperatibaren datuak ordenamendu juridikoak ezartzen dituen mugen barruan isilean gordetzea, bai Kooperatiban dagoen bitartean eta baita baja hartu eta gero ere. Azken kasu horretan, bere mesedetan erabili ahal izango ditu soilik ohiko lanbideak hala eskatzen duenean. Eta hori guztia, Jabetza Industrialari buruzko Estatutuak asmatzailearen kontzeptuaz eta eskubideez jasotzen duenari kalterik egin gabe.
- d) Kooperatibaren helburu berdinak dituen jarduera lehiakorrik ez burutzea, ezta antzekoetan aritzen denari laguntzea ere, Kontseilu Errektoreak berariaz baimentzen ez baditu behintzat.
- e) Esleitzen zaizkion kargu eta funtzioak betetzea, Kontseilu Errektorearen ustez ez egiteko arrazoiren bat ez badago.
- f) Bazkide-izaeraz ez aprobetxatzea jarduera espekulatiboak edo legearen kontrakoak burutzeko.
- g) Zuzendaritzakoekin eta beste bazkideekin giro sozial egokia eta errespetuzko jarrera izatea harreman guztietan.
- h) Kooperatibaren interesei nabarmen kalte egingo lieketen terminoetan publikoki ez aritzea.
- i) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenen ordainketa egitea.
- j) Prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- k) Legez eta estatutuetan ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

## **18. artikulua. Bazkideen eskubideak.**

Hauek dira bazkideen eskubideak:

- a) Kooperatibako kargu sozialetarako hautagaiak hautatzea edo horietarako hautatuak izatea.
- b) Batzarkide diren organo sozialetan hartuko diren akordio guztietan proposamenak egitea eta hitz eginez eta botoa emanez parte hartzea.
- c) Eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzea.
- d) Estatutuetakoa arauen arabera, kooperatibaren jardueraren politika, helburuak, bideak eta esparrua Batzarrean erabakitzea.
- e) Erretornu kooperatiboa jasotzea, batzarrean onetsitako baldintzetan eta barne-araudian zehaztutakoaren arabera.
- f) Kooperatibaren jardueretan eta zerbitzuetan parte hartzea, batik bat Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako Nahitaezko Ekarpenera eta interes publikoko beste helburu batzuetara bideratuta dauden ekintzetan. Bazkideek kooperatibaren jarduera eta zerbitzuetan parte hartu ahal izango dute zuzenean edo Eroski S.Coop.ekin elkarlaneko harremana duten eta Helburu Sozialarekin zerikusia duten beste erakunde batzuetan parte hartuz. Beste erakunde horietan parte hartzen duten bazkideak gutxiengoa izango dira Kooperatiban, arrazoi ekonomikoen, antolaketazkoen, produktiozkoen edo ezinbestekoen erruz enpresan krisialdirik ez badago behintzat.
- g) Estatutu hauetan jasotako terminoetan lege-ekimena burutzea.
- h) Beste erakunde kooperatibo, sozial eta ekonomikoekin loturak sortzen laguntzea, betiere kooperatiben printzipioak errespetatuz.
- i) Egindako ekarpenak eguneratu eta itzultzea eta ekarpenen interesak jasotzea, batzarrean onetsitako baldintzetan eta barne-araudian zehaztutakoaren arabera.
- j) Lan-bazkideen kasuan, prestakuntza soziala eta profesionala.
- k) Lege-arauen eta Estatutu hauen ondoriozko gainerako eskubide guztiak.

## **19. artikulua. Informazio-eskubidea.**

Bazkide orok:

Bat. Legean, estatutuetan edo Batzar Nagusiaren erabakietan aurrez ikusitakoaz baliatuz, informazioa jasotzeko eskubidea.

Bi. Kooperatibaren Estatutu Sozialen eta Barne Araudiaren kopia bat eskatzeko eskubidea, eta egoitza sozialean zein kooperatibaren edozein zentrotan eskatu ahal izango dute.

Hiru. Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiaren bilera-agirien liburua aztertzeko eskubidea. Eta eskatuz gero, Batzar Nagusiko bileran hartutako akordioen kopia ziurtatua eman beharko dio Kontseilu Errektoreak.

Halaber, eskatuz gero, Kontseiluak berak hartutako -eta bazkideari berari bereziki dagozkion- erabakien kopia ziurtatua eman beharko dio Kontseilu Errektoreak bazkideari.

Lau. Kooperatibaren egoera ekonomikoaz informazioa izateko eskubidea, eta eskatuko balu, Kontseilu Errektoreak hilabeteko epean eman egin beharko dio.

Bost. Gai-zerrendaren arabera, Batzar Nagusian ekitaldiko kontuez eztabaidatu eta erabakiak hartu behar direnean, Kooperatibaren egoitza sozialean agerian jarri beharko dira, deialdia egiten denetik Batzarra egin bitartean, urteko kontuak, azalpen-txostena eta soberakinak eta helburuak kooperatibaz kanpo banatzeko proposamena edo galeren egozpena. Epe horretan, halaber, bazkideek aipatutako dokumentazioa aztertu ahal izango dute, eta idatziz eskatu ahal izango diote Kontseilu Errektoreari beharrezkotzat jotzen diren azalpen eta argibideak, aipaturiko azalpenak Batzarrean bertan erantzun daitezten. Eskaera hori Batzarra egin baino gutxienez bost egun baliodun lehenago aurkeztu beharko da.

Gai-zerrendan ekonomiarekin zerikusia duen edozein gai aipatzen denean, aurreko paragrafoan aipatutakoa aplikatuko da, Batzarrean eztabaidatuko den egoera ekonomikoaren oinarritzko dokumentazioa eskuratuz, baina Auditoriaren txostena ez da beharrezkoa izango.

Halaber, Batzarraren deialdia egiterakoan, bazkideek egoitza sozialean eta sozietatearen intranetean gai-ordenako puntuen dokumentazioa aztertzeko eskubidea dutela jasoko da.

Sei. Kontseilu Errektoreari Kooperatibaren egoerari buruzko edozein argibide idatziz eskatzeko eskubidea, eta Kontseilu Errektoreak erantzun egin beharko dio idazkia aurkezten denetik zortzi egunen buruan eta egiten den lehenengo Batzarrean.

Zazpi. Gutxienez 100 bazkidek eskatzen badiote, idatziz, Kontseilu Errektoreari beharrezkotzat jotzen duten informazioa, Kontseiluak eman egin beharko du, idatziz baita ere, eta hilabeteko epearen barruan.

Zortzi. Aurreko Bost, Sei eta Zazpi apartatuen kasuetan, Kontseilu Errektoreak uko egin diezaiolke informazioa emateko betebeharrak, informazio hori emanez gero,

Kooperatibaren legezko interesak arrisku larrian jartzen direnean. Hala ere, salbuespen horrek ez du baliorik izango ukatutako informazioa Batzar Nagusian azaldu behar denean eta informazio-eskaera bertan dauden eta ordezkatuta dauden bazkideen erdiak baino gehiagok babesten duenean, eta, gainerako balizkoetan, informazio-eskatzaileek ezarritako errekurtsoren ondorioz Errekurtsio Batzordeak horrela erabakitzen duenean.

Edozein modutara ere, Bost, Sei eta Zazpi puntuetan jasotako informazioa emateari Kontseilu Errektoreak ezezkoa emanaz gero, eskaera egin duenak aurkaratu ahal izango du Batzar Nagusian adostutakoak aurkaratzen dituen moduan. Gainera, artikulua honetako Bi, Hiru eta Lau apartatuetan jasotako kasuetan, Prozedura Zibilaren Legearen 256 artikuluan aurrez ikusitako prozedurara jo ahal izango da.

Bederatzi. Informazioa eskatzeko eskubidea erabili ahal izango dute, gaiaren arabera, Kontseilu Sozialari edo Kontseilu Kontsumeristari Kooperatibaren egoerari buruzko edozein argibide zehazteko.

Hamar. Edonola ere, Kontseilu Errektoreak, gutxienez, hiru hilabetean behin eman beharko die informazioa organo sozialei, eta egokituz jotzen dituen bideak erabiliz, Kooperatibaren aldagai sozioekonomiko nagusien berri ere eman beharko du, batik bat salmenta-zenbatekoak eta bazkideen altak eta bajak zehaztuz.

## **20. artikulua. (kenduta).**

### **21. artikulua. Bazkideen eskubideak etetea.**

Kontseilu Errektoreak bazkidearen eskubideak eten ditzake bere betebeharrak ekonomikoak betetzen ez dituenean, edo kooperatibaren jardueretan zein zerbitzuetan parte hartzen ez duenean, 17. artikulua b) apartatuan jasotako terminoetan, eta etenaldi hori bertan behera geldituko da bere egoera zuzentzen denean.

Aipatutako etete horrek ez du eraginik informazioa jasotzeko duen eskubidean ezta, hala badagokio, erretornua jasotzekoan ere, ekarpenen interesak, kapital soziala eta haien eguneratzeak ordaindu eta gero.

### **22. artikulua. Bazkidearen baja.**

Bat. Edozein bazkidek eman dezake baja Kooperatiban, noiznahi, Kontseilu Errektoreari idatziz jakinarazi eta gero. Aurreabisuko epea bi hilabetekoa izango da 5 eta 6 profesio-bandetako lan-bazkideentzat eta hiru hilabetekoa gainerakoentzat. Bazkide kontsumitzaileentzako epea bi hilabetekoa da.

Bajaren kalifikazioa justifikatuztat edo justifikatu gabetzat hartzea Kontseilu Errektorearen eskumena izango da, eta hark formalizatu beharko du, gehienez ere hiru hilabeteko epean, aurreko paragrafoan aipatzen den jakinarazpena egiten denetik kontatzen hasita. Kalifikazioa idatziz jakinaraziko zaio bazkideari. Epe hori igaro eta Kontseilu Errektoreak ez badu jakinarazten, baja justifikatuztat joko da.

Bi. Kontseilu Errektoreak, horren inguruan ezartzen den araudiarekin bat, baja hartzen duten bazkideei Kooperatibak haien alde itundu dituen eragiketa aktibo guztiak bertan behera uzteko eska diezaielako, Eroski S.Coop.entzat arriskutsua den eragiketa hori edozein dela ere: mailegua, kreditua, merkatu-deskontuak edo hirugarren baten aurrean

onartutako sinadura-bermeak. Eragiketa aktibo horiek bertan behera uzteko epea ezingo da sei hilabetekoa baino handiagoa izan, eta bazkideak ziurtatu beharko dio Kooperatibari eragiketa aktiboek baja-unean duten likidatzekoa.

Hiru. Kooperatibaren jarduera luzatzea, bat egitea edo zatitzea, izaeraz aldatzea edo bere helburu soziala errotik aldatzea, kapitalera ekarpen berriak egitea, edota Estatutuetan aurrez ikusi gabeko betebeharrak edo karga oso garestiak hartzea eskatzen duen Batzar Nagusiaren erabaki ororekin ados ez dagoen bazkideak eman ahal izango du baja, baldin eta bere aurkako botoa salbatu badu edo bilkuratik kanpo egon bada, eta hau justifikatuzat joko da, erabakia hartzen denetik kontaktatzen hasi eta berrogei egunen barnean Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki bidez. Eraldaketako kasuan, 77. bis artikuluan aurrez ikusten dena egingo da.

Lau. Arrazoitu gabeko borondatezko bajatzat hartuko dira, aldiz, honako hauek:

- Aurreabisuko epea ez betetzea.
- Lan-bazkideek konkurrentziako ekintzetan jarduteko egindako bajak.
- Lan-bazkideek baja hartzea ordezko ezagutza behar bezala transmititu gabe, edo bere prestakuntzan gastatutako dirua amortizatzeko nahiko denbora pasatu ez denean edo Kontseilu Errektorearen ustez bestelako kalteak eragin dituenen.

Bost. Kontseilu Errektoreak hartutako kalifikazioari eta borondatezko bajaren ondorei buruzko erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak aurkaratu ahal izango du Errekturto Batzordearen aurrean, Estatutu hauen 29. artikulua aurreikusitako baldintza eta epeetan.

### **23. artikulua. Bajaren ondorio ekonomikoak.**

Bat. Bazkide-izaera galtzen den kasu guztietan, bazkideak edo bere kausadunak alderdi soziala itzultzeko eskubidea izango dute, eta horren balioa Batzar Nagusiak onesten duen baja-eskaeraren datako ekitaldiari dagokion balantzearen gainean kalkulatuko da.

Bi. Lan-bazkideak kooperatiban baja hartzeko dituen arrazoiaren arabera, Kontseilu Errektoreak haren nahitazko ekarpenen gainean kenkari-ehunekoak aplikatu ahal izango ditu, besteak beste:

- a) Kanporatzeagatik baja denean, % 30 artekoa.
- b) Arrazoitu gabeko baja denean, % 20 artekoa.
- c) Baja arrazoitua edo heriotzagatik baja denean, ezingo da kenkaririk aplikatu.
- d) Ezingo da kenkaririk aplikatu bazkideen borondatezko ekarpenetan.

Ehuneko horiek aplikatzerakoan, Kontseilu Errektorea saiatuko da ehuneko horiek bazkideengan duten eragin ekonomikoa antzeko egoeretako kenkarien parekoa izan dadin.

Hiru. Batzar Nagusiak urtero ezarriko du, ekitaldi bakoitzerako, baja eragindako bazkideei itzuli beharreko kapital-ekarpenen gehieneko zenbatekoa.

Nolanahi ere, Batzar Nagusiak ezingo ditu onartu honako hau egiten duten bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa-eskaerak:

- a) Kooperatibaren kapital soziala Kontseilu Errektoreak une bakoitzean zehazten duen kaudimen-atalasearen azpitik geratzen da, edo atalase hori ez da gainditzen.
- b) Dagozkion ordainketen ondorengo likidezia Kontseilu Errektoreak zehaztutako likidezia-atalasearen azpitik geratzen da, edo, atalase hori ez da gainditzen.

Lau. Batzar Nagusiak ez badu erabakitzen itzultzeko eskatu diren ekarpen guztiak itzultzea, betebeharrak hauek ezartzen dira:

- Kooperatibak bere emaitza erabilgarriaren erdia Nahitaezko Erreserba Funtsean sartu behar du.
- Kooperatibak ezin du lan-bazkideen kapital sozialera egindako ekarpenen ordainsaririk adostu.
- Kooperatibak ezin du lan-bazkideen erretornurik adostu.
- Emaitza garbiak (aurreko ekitaldietako galerak konpentsatu ondorengo emaitzak) edo sortzapena gauzatzeko behar adina erreserba erabilgarri izanez gero, diruaren legezko interesa baino beheragoko ordainsaria sortzea erabakitzen badu Kooperatibak Batzarrak onetsi gabeko itzulketako ekarpenen alde, ekarpen horien balio nominala hobetuko du gutxienez interes horren eta sortutakoaren arteko zenbatekoaren baliookidearekin, lan-bazkideen kapital sozialera egindako ekarpenen ordainsaria eman aurretik. Ondorio bera izango da horren inguruan erabakirik hartzen ez bada.
- Salbuespen modura, Eroski Fundazioan sartutako zenbatekoaz gain, IPHNEa helburu asistentzialetan baino ez da erabiliko eta zenbateko hori Kontseilu Errektoreak kudeatuko du.
- Itzulketa erabaki gabeko ekarpenen titularrek eskubidea izango dute urtero informatuak izateko beren ekarpenen itzulketari eta ordainketari eragiten dieten alderdiei buruz, eta Kontseilu Errektoreak hartzen dituen bestelako erabakiei buruz ere bai.

Bost. Batzar Nagusiak itzulketa onesten dien ekarpenen zenbatekoa Kontseilu Errektoreak banatuko du bazkide ohien artean, honako arau hauen arabera:

- a) Zenbateko horren ehuneko bat adin jakin bat gainditzen duten lan-bazkide ohien kapitalerako ekarpenen itzulketari erantzuteko erabiliko da, adin handienetik txikienerako eta urte bakoitzeko arteko ordenari jarraituz, haien ekarpenen zenbatekoaren proportzioan, eta heriotza, Ezintasun Absolutua edo Erabateko Ezgaitasun Iraunkor Kualifikatua (EEIK) izandako bazkide ohien kapitalari egindako ekarpenen proportzioan.
- b) Gainerako zenbatekoa, Batzarrak onetsitako zenbatekoraino, kapitalerako ekarpenak itzultzea eskatzen duten bazkide ohien artean banatuko da, aurreko a) apartatuko lan-bazkideak barne, baldin eta haien ekarpenak ez badira erabat itzuli, bazkide gisa baja emandako urteko antzinatean handiagotik txikienera eta urte bakoitzeko ekarpenen proportzioan.

Kontseilu Errektoreak hauek ezarriko ditu:

- Batzar Nagusiak onetsitako itzuli beharreko zenbatekoaren %, a) apartatuko bazkideentzat erabiliko dena.
- Lan- bazkideek aurreko a) apartatuko kolektiboaren barruan sartzeko izan behar duten gutxienerako adina. Ondore horietarako, kontuan hartuko da bazkideak itzultzeko erabakia hartzen duen Batzar Nagusia egiten den hilabeteko azken egunean duen adina.
- Ordainketa egiteko epea baja-kalifikazioaren arabera eta ekitate-irizpideen arabera egingo da; epe hori ezingo da izan bost urtetik gorakoa, Batzar Nagusiaren itzulketa-

erabakiaren egunetik aurrera. Epe horretan, ordaindu gabeko ekarpenak diruaren legezko interesaren adinako urteko interesa jasoko du, eta ezingo da eguneratu. Itzulketaren erabaki horretatik aurrera, zor den zenbatekoa ez da kapital sozialtzat hartuko.

Sei. Kontseilu Errektorearen erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak errekurtsa jarri ahal izango du Errekurtsio Batzordearen aurrean, erabakiaren berri duenetik berrogei eguneko epean, eta Errekurtsio Batzordeak hiru hilabeteko gehieneko epean ebatzi beharko du.

#### **24. artikulua. Nahitaezko baja.**

Bazkide izateari nahitaez utziko dio Legeak ezarritako baldintzak betetzen ez dituenak edo Kooperatibaren barruan eskatutakoa betetzeari uzten dionak.

Kontseilu Errektoreak erabakiko du baja, ofizioz, aurrez interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren, edozein bazkidek edo bazkide izaten jarraitzeko baldintzak galdu zituenak hala eskatuta.

Nahitaezko baja arrazoizkotzat hartuko da aipatutako baldintza horiek galtzerakoan bazkideak Kooperatiban dituen betebeharrak ez betetzeko asmorik edo nahitaezko bajaz behar ez bezala baliatzeko asmorik ez dagoenean.

Kontseilu Errektorearen erabakiaren aurka, bazkide ez-diskonformeak errekurtsa jar dezake, eta horretarako 29. artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da.

#### **25. artikulua. Diziplina-arauak. Hutsegite sozietarioak/lanekoak.**

Giro sozial eta erantzukizun egokia ziurtatzeko, eta bazkideen arteko elkarbizitza eta Kooperatibaren kudeaketa ez eragozteko, artikulua hauetan zehaztutako diziplina-erregimena ezarri da.

#### **26. artikulua. Hutsegite sozietario eta lanekoan kalifikazioa.**

Hutsegite sozietarioak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

a) Hutsegite arinak dira.

Izaera sozietariokoak.

1. Kooperatibaren helburuak garatzeko eta gizalegez jokatzeko zehaztu diren arauak ez betetzea.
2. Barne-funtzionamendurako arauak, araudiak eta estatutuetako prezeptuak ez betetzea, aitzakiarik gabeko ezjakintasunagatik.
3. Deia jaso arren, arrazoi justifikaturik gabe ekitaldi sozialetara ez joatea.

Lan-izaerakoak.

4. Arrazoi justifikaturik gabe lanera huts egitea hilabetean bi orduz.
5. Zabarkeria edo aitzakiarik gabeko axolagabekeria, Kooperatibaren interesei kalterik eragiten ez badie.
6. Justifikaziorik gabe lanera bost aldiz baino gehiagotan berandu iristea hiruhileko natural batean.

7. Istripu arinak sor ditzakeen arreta-falta izatea, eta istripuak eragozteko jarraibideak axolagabekeriaz betetzea.
8. Lana justifikaziorik gabe uztea eta lanarekin zerikusirik ez duten jarduera arinak burutzea.
9. Bazkide bakoitzari esleitutako lanak eragozten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.
10. Lan-bazkidearen hutsegiteak, Kooperatibako kide den Lagun Aroko mutualista gisa egindakoak, eta aipatutako mutualitate horretako Estatutuetan hutsegite arin gisa aipatzen direnak:

- Kide den kooperatibari helbide-aldaketaren berri ez ematea.
- Lanerako ezintasun iragankorra eta Behin-behineko baliaezintasuna dagoenean, medikuaren diagnostikoarekin bat ez datorren bizimodua izatea.
- Lagun Arori identifikazio-txartela galdu izanaren berri ez ematea, galdu dela ohartu eta berehala.
- Lagun Aroren helburuak garatzeko eta gizalegez jokatzeko organo eskudunek zehaztu dituzten arauak ez betetzea.
- Funtzionamendu-arauak, araudiaren eta estatutuetoako prezeptuak ez betetzea, aitzakiarik gabeko ezjakintasunagatik.
- Deia jaso arren, arrazoi justifikaturik gabe ekitaldi sozialetara ez joatea, bereziki Batzar Nagusietara.

b) Hutsegite larriak dira.

Izaera sozietariokoak.

1. Hiru urte baino gutxiagoko epean hiru hutsegite arin baino gehiago egitea.
2. Deialdia jaso arren ekitaldi sozialetara ez joatea arrazoi justifikaturik gabe, azken bost urteetan organo sozial horren bileretara ez joateagatik bazkidea bi hutsegite arin izateagatik zigortua izan denean.
3. Prestamen Batzarrean hautatutako Delegatuak Batzar Nagusira ez joatea arrazoi justifikaturik gabe.
4. Hautatu eta gero, bete behar dituzten kargu sozialen betebeharrak behar bezala ez egitea.
5. Izendatu eta gero, kargu sozial horiek ez onartzea edo arrazoi justifikaturik gabe dimisioa ematea, Kontseilu Errektoreak hala erabakiz gero.

Lan-izaerakoak.

6. Urtebete baino gutxiagoko epean hiru falta arin egitea.
7. Arrazoi justifikaturik gabe lanera huts egitea hilabete batean zortzi orduz.
8. Justifikaziorik gabe lanera hamar aldiz baino gehiago berandu iristea hiruhileko natural batean.
9. Publikoarekiko begirune-falta eta hitz eta egitezko tratu txarrak lankideei.
10. Protesta-ekintzak modu lotsagabe eta zaratsuan egitea, baita hutsegite arinengatik ezartzen diren zehapenak ez betetzea ere.
11. Errendimendurik eza, eta berebat indiziplina edota gaineko arduradunek laneko gaietan esandakorik ez onartzea.
12. Istripu larriak sor ditzakeen arreta-falta izatea.
13. Lanbide-sekretua haustea, kalterik sortu ez arren.
14. Segurtasun-arauak ez betetzea, borondatez edo zabarkeriaz.
15. Dokumentuak, gutunak eta datuak baimenik gabe atxikitzea, edo horiei dagokien aplikazioa, helburua edo erabilera ez ematea.

16. Lanaldian zehar lan edo zerbitzu partikularrak egitea, eta Kooperatibaren tresnak, materialak eta bideak norberaren zeregin propioetarako erabiltzea.
17. Zuzendaritzak eta arduradunek bezeroei deskontuak eta bestelako arriskuak esleitzeko funtzioen eta eskumenen gehiegizko erabilera egitea, eta funtzio eta eskumen horiek ez dituztenek horiek bereganatzea.
18. Aginte-gehiegikeria, tratu txarrak edo bazterkeriazko jokaera larriak edukitzea men dekoekin.
19. Lana uztea, justifikaziorik gabe, eta lanarekin zerikusirik ez duten jarduera larriak burutzea.
20. Bazkide bakoitzari esleitutako lanen eta erantzukizunen martxa ona modu larri batean behaztopatzen duten ekintzak edo ez-egiteak.
21. Lan-bazkidearen hutsegiteak, Kooperatibako kide den Lagun Aroko mutualista gisa, eta aipatutako mutualitate horretako Estatuetan hutsegite larri gisa aipatzen direnak egitea:
  - Sarrerako mediku-azterketan daukan edozein gaixotasun edo lesio ez deklaratzeko.
  - Enplegu-aniztasunean aritzea Kooperatibari ezer adierazi gabe, egoera horrek sortzen duen estalduraren jakitun dela erakutsiz.
  - Lanerako ezintasun iragankorra behar ez bezala luzatzea, edo Lagun Arok susperraldirako ezarritako diziplina ez betetzea.
  - Hutsegite arinak errepikatzea.
  - Egindako edo ikusitako hutsegiteak borondatez edo zabarkeriaz ezkutatzea, edo deklarazioak faltsutzea ekintza horiek kalte larriak sortu dituztenean edo eginbeharrak ez betetzea arrandiaz adieraztea.
  - Alta baldintzatuan dagoen mutualista lanera itzultzeari buruz Erregelamendu egokien Artikulu aplikagarrietan jasotzen dena onartzeari uko egitea.
  - Ezarrita dagoenaren kontra, Osasun Laguntzaren prestazioak edo Lanerako Ezintasun Iragankorra antzeko beste batekin borondatez osatzea, Kontseilu Errektoreak espresuki baimenik eman gabe.
22. Oro har, Kontseilu Errektoreak larritzat jotzen dituen guztiak, Kooperatibaren funtzionamendu ona bermatzeko.

c) Hutsegite oso larriak izango dira.

Izaera sozietariokoak.

1. Hiru urte baino gutxiagoko epean hiru hutsegite larri baino gehiago egitea.
2. Organo eskudunetan balio osoz onartutako akordioak ez betetzea.
3. Kooperatibaren interes materialei edo ospe sozialari kalte egin diezaioketen jarduerak burutzea, hala nola lehiako eragiketak egitea, ekarpenetan eta prestazioetan maulaz jokatzeko, Erakundeko kudeatzaileei edo ordezkariiei begirune-falta adieraztea eta antzekoak.
4. Berez Kontseilu Errektoreari, Errekurtso Batzordeari, Jagoletza Batzordeari edo horietako edozein kideri dagozkion eginkizunak bere gain hartzea.
5. Kooperatibaren funtzionamendua arautzen duten xedapenak nabarmen ez betetzea edo besteei ez betearaztera bultzatzea, beste bazkide batzuek hutsegiterik egin ez arren.
6. Kooperatibaren jardueretan gutxi parte hartzea, Estatuetako moduluetan jasotakoaren arabera.
7. Kooperatibarekiko betebeharrak ekonomikoak behin eta berriz ez betetzea, ezta Estatuten 17. artikuluan jasotzen direnak ere ez betetzea.

8. Bazkide-izaeraz baliatzea jarduera espekulatiboak edo legearen kontrakoak garatzeko.
9. Kooperatibaren korrespondentzia-sekretua edo dokumentu erreserbatuak bortxatzea edo Kooperatibaren inguruko isilpeko datuak kanpokoei jakinaraztea.

Lan-izaerakoak.

10. Urtebete baino gutxiagoko epean hiru falta larri egitea.
11. Justifikaziorik gabe lanera hogeitaz bako aldiz baino gehiago berandu iristea hiruhileko natural batean.
12. Arrazoi justifikaturik gabe hilabete batean hogeitaz orduraz lanera huts egitea.
13. Kooperatibarekiko iruzurra, desleialtasuna edo konfiantza-abusua kooperatibak eskatutako egitekoetan jardutean edo egiteko horiek baliatuz, eta baita zerbitzutik kanpo Kooperatibari iruzur egiten dioten ekintzak burutzea ere.
14. Lanbide-sekretua haustea Kooperatibari edo hirugarren batzuei kalte egiten dienean.
15. Zerbitzuarekin zerikusia duten dokumentuak edo datuak faltsutzea edo bahitzea.
16. Ebasketa, lapurreta, bidegabe jabetzea eta iruzurra, zenbatekoa edozein dela ere; eta, oro har, Kooperatibari kalte egiten dioten ekintzak egitea edo haien ez ikusi egitea, edo Kooperatibaren zerbitzura dauden bitartean gauzatzea.
17. Edozein dolozko delitugatik kondenatzea, Kooperatibaren iritziz eta bereziak izateagatik delitu horiek egin dituen pertsonarenganako konfiantzan eraginik ez dutenak izan ezik.
18. Kooperatibako hornitzaileengandik eta/edo bezeroengandik edota hirugarren batzuegandik, zuzenean edo zeharka, ordainsariak, promesak, abantailak edo edozein motatako laguntzak onartzea edo kudeatzea, haien zerbitzu bat egiteagatik edo egin izanagatik.
19. Kooperatibatik kanpoko lanak edo jarduerak burutzea bateraezintasunak egon daitezkeela susmatzen denean.
20. Lantokia bezeroentzat ixtea Zuzendaritzaren baimenik izan gabe edo arduraren hori duten pertsonen agindurik izan gabe.
21. Barruko arazoengatik grebak antolatzea edo grebetan parte hartzea.
22. Indiziplina edota gaineko arduradunek laneko gaitan esandakorik ez onartzea, horrek Kooperatibari edo lankideei kalte handia egiten dienean, baita hutsegite larriengatik ezartzen diren zehapenak ez betetzea ere.
23. Zentroko zuzendaritzak bezeroei deskontuak eta baldintza komertzialak esleitzeko funtzioen eta eskumenen gehiegizko erabilera oso modu larrian egitea.
24. Aginte-gehiegikeria, tratu txarrak edo bazterkeriazko jokaera oso larriak edukitzea mendekoekin.
25. Justifikaziorik gabe lana uztea eta lanarekin zerikusirik ez duten jarduerak oso larriak burutzea.
26. Istripu oso larriak sor ditzakeen arreta-falta izatea.
27. Bazkide bakoitzari esleitutako lanen eta erantzukizunen martxa ona modu larri batean behaztopatzen duten ekintzak edo ez-egiteak.
28. Lan-bazkidearen hutsegiteak, Kooperatibako kide den Lagun Aroko mutualista gisa, eta aipatutako mutualitate horretako Estatutuaren hutsegite oso larri gisa aipatzen direnak egitea:
  - Lagun Arori prozedura zibil edo penalak ezkutitzea, edo prozedura horien datak ez jakinaraztea.
  - Norberaren eskubideei uko egitea edo erantzule diren hirugarren batzuekin edota haien aseguru-etxeekin akordio batera iristea Lagun Aroren baimenik gabe.
  - Lagun Arori aurreratutako zenbatekoari dagokion zatia itzuli nahi ez izatea, jasandako kalteen kalte-ordaina zehaztu eta gero.

- Gaixotasunaren edo jasandako lesioen arrazoiak ezkatzea edo faltsutzea.
- Edozein gaixotasun edo istripu simulatzea, eragitea edo larriagotzea, borondatez edo maltzurkeriaz.
- Baja-egoeran lan egitea, baldin eta alta baldintzaturako aurrez ikusitakoa betetzen ari ez bada.
- Identifikazio-txartela hirugarren batzuei ematea edo noizean behin uztea iruzur egiteko, edo mutualistak eta onuradunak ez diren pertsoneri bolantea ematea.
- Lagun Aroren interesen kaltetan eta jakinaren gainean iruzur egitea edo ondorio horietara eramaten duten bideak borondatez jartzea.
- Hutsegite larriak errepikatzea.

29. Batzar Nagusian balio osoz hartutako erabakiak betetzeari uko egitea.

30. Oro har, Kontseilu Errektoreak oso larritzat jotzen dituen guztiak, Kooperatibaren funtzionamendu ona bermatzeko.

## **27. artikulua. Hutsegite sozietario eta lanekoengatiko zehapenak.**

Kasu bakoitzean ezarriko diren zehapenak honako hauek dira:

a) Hutsegite arinengatik.

1. Idatzizko zentzarazpena.
2. Bi egun arterainoko lan-aurrerakinak kentzea, lan-jarduera bertan behera utzita. Bazkideak aldi horretan lan-jarduera bertan behera ez uztea aukera dezake.

b) Hutsegite larriengatik.

1. Idatzizko zentzarazpena.
2. Idatzizko ohararazpena, Kontseilu Errektorearen iritziz publiko egin daitekeena.
3. Errektore eta Errekturso Batzordeko kide edo Jagoletza Batzordeko kide hautatua izateko ezintasuna, hurrengo ondoz ondoko bi hauteskundeetaraino.
4. IPHNEan edo beste instantzia baten kargura Kooperatibak bazkideen alde ezarritako laguntza-zerbitzuak urtebetez kentzea.
5. Zazpi egun arterainoko lan-aurrerakinak kentzea, lan-jarduera bertan behera utzita. Bazkideak aldi horretan lan-jarduera bertan behera ez uztea aukera dezake.
6. Goragoko lanpostua eskatzeko desgaitzea gehienez ere hiru urtez.
7. Lan-indizea % 10 arte murriztea gehienez ere urtebetez.

c) Hutsegite oso larriengatik.

1. Aurreko guztiak.
2. Idatzizko zentzarazpena, Kontseilu Errektoreak formulatuta.
3. Eskubide sozial guztiak edo batzuk behintzat etetea, Kontseilu Errektoreak zehaztutako denboran zehar, gehienez ere hiru urtez.
4. Kooperatibaren zerbitzuak aldi baterako etetea gehienez ere hiru urtez.
5. Bi hilabete arterainoko lan-aurrerakinak kentzea, lan-jarduera bertan behera utzita. Bazkideak aldi horretan lan-jarduera bertan behera ez uztea aukera dezake.
6. Lan-indizea % 30 arte murriztea gehienez ere bost urtez.
7. Nahitaz lanpostuz aldaraztea; izan daiteke beheragoko maila batera (talde profesional berean edo beste batean) eta denbora mugagabez.
8. Beste udalerrri bateko zentrorra nahitazko lekualdaketa, denbora mugagabez eta kalte-ordaina eskuratzeko eskubiderik gabe.
9. Kanporatzea.

## **28. artikulua. Zehapen-prozedurak.**

### Bat. Prozedura.

- a) Hutsegite-espeditenteen dokumentu guztien bi ale beteko dira, horietako bat bazkide bakoitzaren espeditentean artxibatzeko.
- b) Balizko egoera horietan guztietan, interesdunari idatziz eman beharko zaio alde zuzenetik aurretik entzuteko aukera.
- c) Prozedura honelakoa izango da:

Bazkide kontsumitzaileentzat.

Zuzendaritzak formulatuko du kargu-orria, eta erruduntzat jo den bazkideari jakinaraziko dio hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta horri dagokion zehapen-proposamena. Bazkideak deskargua egin ahal izango du, eta Kontseilu Errektorearen aurrean aurkeztu. Kontseilu Errektoreak ezarriko ditu kalifikazioa eta zehapena. Kontseilu Errektoreak bazkide kontsumitzailearen udalerriko Kontsumoko Batzordeak horri buruz egin duen idazkia hartuko du oinarritzat erabakia hartzeko.

Lan-bazkideentzat.

1. Zuzendaritzak formulatuko du kargu-orria, eta erruduntzat jo den bazkideari jakinaraziko dio hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta horri dagokion zehapen-proposamena. Bazkideak deskargua egin ahal izango du, eta Zuzendaritzaren beraren aurrean aurkeztu. Zuzendaritzak ezarriko ditu kalifikazioa eta zehapena, kanporatzearen kasuan izan ezik, zehapen hori soilik Kontseilu Errektorearen esku baitago.
  2. Hutsegite arin eta larrien kasuan, bazkideak kalifikazioa eta zehapena aurkara ditzake Kontseilu Sozialari deskargua eginez, Kontseilu Errektoreak kontraktorik erabakitzen ez badu. Hutsegite oso larri dagokienez, berriz, organo erabakitzailea Kontseilu Errektorea izango da, eta, horretarako, Kontseilu Sozialaren alde aurreko txostena izan beharko du.
- d) Kontseilu Errektorearen ebazpena behin betikoa izango da, nola eta ez den Errekurtso Batzordearen aurrean apelatzen.

Bi. Epeak, oro har.

Berre juridikoak direla-eta, hutsegite-espeditentearen fase bakoitzari dagozkion jarduerak bertan behera gelditzen direla adierazten duten epeak honako hauek dira:

- a) Espedientea irekitzeko epeak.

Zuzendaritzak edo Kontseilu Errektoreak hutsegite-espeditente bat irekitzeko dituen epeak, bazkide interesdunari jakinarazi aurretik, honako hauek dira:

- 1 hilabete, hutsegite arin gisa sailkatutako kasuetarako.
- 2 hilabete, hutsegite larri gisa sailkatutako kasuetarako.
- 3 hilabete, hutsegite oso larri gisa sailkatutako kasuetarako.

Arau-haustea egin den egunetik hasiko dira epeak zenbatzen.

Arau-hauste jarraituen kasuan, jokabide arau-hauslea amaitu zenetik hasiko da epea zenbatzen.

Preskripzio-epea eten egingo da zehapen-izaerako prozedura bat hasiz gero, interesdunak horren berri izanik; preskripzio-epea berriz hasiko da baldin eta zehapen-espedientea geldirik badago, ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion kausa batengatik, inolako ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabete baino gehiagoz.

b) Deskargurako epea.

Zehapen-proposamena jasotzen denetik zazpi egun naturaleko epea ezartzen da.

c) Errekurtsorako epeak.

Errekurtso bakoitza organoen aurrean aurkezteko gehieneko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, zehapen bakoitza jakinarazten denetik aurrera.

d) Errekurtsoen ebazpenerako epeak.

Organo bakoitzak aurreko apartatuan ikusitako errekurtsoei erantzuteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da aurkeztzen direnetik aurrera. Behin epe hori errekurtsoa ebatzi eta jakinarazi gabe igarotakoan, errekurtsoa baietsi dela ulertuko da.

Hiru. Hutsegite oso larriagatiko diziplina-espedientea izapidetzen ari den bitartean, Zuzendaritzak lan-jardueratik kanpo utz dezake bazkidea aldi baterako, salbuespen gisa, kautelazko neurri gisa eta zehapen-izaerarik gabe. Bazkideak lan-aurrerakina jasotzeko eskubidea izaten jarraituko du aldi horretan.

Lau. Zehapenaren betearazpena.

Zehapen guztiak betearazi beharrekoak dira dagokion errekurtsoa aurkezteko epea agortu eta hurrengo egunean, espedientepeko bazkideak eskubide hori erabili ez badu, edo behin betiko erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bost. Zehapenak bertan behera uztea.

Kanporatzearen kasuan izan ezik, Kontseilu Errektoreak, interesdunen eskariz, bazkideei ezarritako zehapenak edota jadanik iragandako zehapenen idatzoharrak bertan behera utzi ditzake oraindik betetzeko badaude, bere ustez hori egiteko arrazoi justifikaturik egonez gero.

## **29. artikulua. Kanporatzea.**

Bat. Bazkideen kanporatzea Kontseilu Errektoreak soilik erabaki dezake, hutsegite oso larriarengatik espedientearen instrukzioa egin eta gero. Espediente horretan bertan interesdunaren deskargua jaso beharko da.

Bi. Kanporatze-erabakiaren kontra errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jakinarazpena egiten denetik hogeita hamar egun naturaleko epean, eta Errekurtso Batzordearen aurrean aurkeztu beharko da, jakinarazpena egiten zaionetik gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi dezan. Kanporatzea berresten duen erabakia betearazlea izango da, eta

bazkideak aurkaratu ahal izango du erabakia jakinarazten denetik bi hilabeteko epean, prozesu bidez eta Euskadiko Kooperatiben Legeak ezarritako baldintzetan.

### **30. artikulua. Lan-bazkideen probaldia.**

Bat. 11. artikuluaen bi b) apartatuan aurrez ikusitako probaldian zehar, Sarrera-kuota eta lan-bazkide gisa onartzean nahitaez ordaindu behar den hasierako Kapitalaren ordainketa atzeratu egingo da.

Bi. Lan-bazkide izateko hautagaiak ez du probaldian zehar Kooperatibaren jardueraren ondoriozko inolako erantzukizun ekonomikorik izango. Gizarte Segurantzaren onurez gozatu du, Kooperatibak onartutako modalitatean. Halaber, bazkide-izaera hartzen duen datatik aurrera, erretornua izateko eskubidea izango du.

### **31. artikulua. Gizarte Segurantzako Erregimena.**

Bere lan-bazkideek Gizarte Segurantzaren onurak izan ditzaten, Kooperatibaren jarduerari dagokion Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren modalitatea aukeratu du Eroski S.Coop.ek, eta, horretarako, betebeharrekoaren posizio juridikoa hartzen du Kooperatibak Gizarte Segurantzaren aurrean, kuoten ordainketan ere zuzeneko eta lehenengo arduradunaren izaera hartuz.

Kooperatibak, era berean, Lagun Aro BGAeri ordaindu beharreko ekarpenak bere gain hartzen ditu, lan-bazkideen onurarako, Estatutu Sozialetan eta Lagun Aro BGAeren Prestazio Araudian araututako baldintzen arabera, horietan aurreikusitako prestazioak kuota-motaren arabera finantzatzeko helburuarekin. Horien artean daude: desgaituentzako laguntza, osasun-laguntza, aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, enpleguarentzako laguntza, heriotzagatiko laguntza, erretiroa, alarguntza eta ezintasun iraunkorra.

### **32. artikulua. Lan-bazkideen barneko antolaketa funtzionala.**

Eroski S.Coop.eko lan-bazkideek barne-antolaketa izango dute, Batzar Nagusiak onetsi behar duen Kooperatibaren Barne Araudiaren arabera, honako irizpide orokor hauetan oinarrituz:

- a) Lan-bazkide guztiak lanpostuaren arabera eta Kooperatiban ematen duten zerbitzuaren arabera sailkatuko dira, dagozkien ordainketak jasotzeko lan-aurrerakin gisa.
- b) Lanpostu bakoitzaren sailkapenean aplikatuko diren lan-indizeak Zuzendaritzak proposatu eta Kontseilu Errektoreak onetsiko duen balorazio-araudiaren aplikazioan ateratzen direnak izango dira.
- c) Lanpostu bakoitzaren sailkapena egiteko aplikatuko diren mailen arabera, Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren egituraren organigrama nagusiak onetsiko ditu, eta horiek zehazteko behar-beharrezkoa izango da lanpostu bakoitzaren funtzioen eta harremanen deskripzioa egitea.
- d) Kontseilu Errektoreak izendatuko du Zuzendaritza Nagusia, 63. artikuluan ezarritakoaren arabera. Saitetako Zuzendaritzak eta goi-mailako exekutiboak Kontseilu Errektoreak izendatuko ditu, Zuzendaritza Nagusiaren proposamenean oinarriturik. Xede soziala betetzeko beharrezkoak diren gainerako agintedun langileak edo exekutiboak Zuzendaritza Nagusiak izendatuko ditu, dagozkien Zuzendaritzek proposatu eta gero. Jarduketa-proposamen hau autonomia osoz sortu eta arituko da, legez eta estatutuen eremuaren barruan. Lan-bazkideek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Kontseilu Errektoreari aginte-katearen inguruan, ildo betearazlea agortu eta gero, baina, hala ere, gainerako arduradunen aginduak bete beharko dituzte.

- e) Kooperatibako lanpostuen lanbide-sailkapena egiteko, kontuan hartuko da lanpostu bakoitzari dagokion maila, eta maila hori balorazio-araudia aplikatuz lortuko da.
- f) Kontseilu Errektoreak urtero ezarriko du gutxieneko indizearen ordu normalari dagokion lan-aurrerakina. Eta hori kalkulatu ondoren ezarriko dira, horren gainean, gainerako indizeei dagozkien lan-aurrerakinak. Aurrerakin horiek aldi-aldi eta noizbehinka jasotzen dira eta eskudirutan eta espezieetan ordain daitezke, eta, nolahi ere, azken emaitzen kontura; halakoan urteko zenbatekoak lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa izan beharko du gutxienez.
- g) Lan-bazkideek urtean lan egin beharreko ordu-kopurua, bai eta haien Lan Arauak, oporrak eta aparteko ordainsariak, egonez gero, Kontseilu Errektoreak ezarriko ditu Kontseilu Sozialaren proposamenarekin.
- h) Kooperatiben Legearen 30. artikulua arabera, behar bestekoa ez den errentagarritasuna eragiten duen enpresa-jardueraren murrizketaren aurrean, edo kausa objektiboak direla-eta, Kontseilu Errektoreak, Zuzendaritzaren txostenarekin eta Kontseilu Sozialari entzun ondoren, salbuespen gisa irizpena eman ahal izango du plantillan soberakina dagoela jasoz eta dagozkion neurriak eman ahal izango ditu, barne-araudian aurreikusten denaren arabera.
- j) Lan-bazkideen Lan Araubidearekin zerikusia duten gainerako alderdiak Kooperatibaren Barne Araudian arautzen dira.

### **33. artikulua. Bazkide kontsumitzaileen barneko antolaketa funtzionala.**

Eroski S.Coop.eko bazkide kontsumitzaileek barne-antolaketa izango dute, Kooperatibaren Barne Araudiaren arabera, honako irizpide orokor hauetan oinarrituz:

- a) Udalerri jakin bati lotuta egongo dira, bai bizilekura bai bazkideak adierazitako beste edozeinetara. Aurrerantzean, eta Kooperatibaren ekitaldi sozialetan parte hartzeari dagokionez, inskribatu den udalerrikoan hartuko du parte bazkideak.
- b) Bazkide kontsumitzaileen komunitate bakoitzeko Batzorde Kontsumerista Lokala izeneko talde bat sortu ahal izango da, kontsumoan interesa duten guztien artean. Batzorde horrek Kontseilu Errektorearen aurrean informatu, aholkatu eta kontsultak egingo ditu.
- c) Batzorde Kontsumerista Lokalak Estatutuetan jasotzen diren funtzioak izango ditu, bai eta aurreko puntuan ezarritako izaera beraz Kooperatibaren Barne Araudiaren barruan esleitu dakizkiokeenak ere. Helburu soziala lortzeko hobekuntzara bideratuko dira batzorde horren jarduerak, eta, beste batzuen gainera, kontsumitzaileen prestakuntzari eta eskubideen defentsari emango diote lehentasuna.
- d) Batzorde Kontsumerista Lokal bakoitzaren barruan Lehendakari, Lehendakariordetza eta Idazkaritza izendatuko dira. Batzorde Kontsumerista Lokalaren Zuzendaritza izango da taldearen erantzulea Kooperatibaren Kontseilu Errektorearen aurrean, Kontseiluaren mende egonik. Kontseilu Errektoreak Batzordeen bizi-funtzionamendurako betebeharrak eta lan operatiboak eman diezazkioke Zuzendaritzari.
- e) Batzordeetako Zuzendaritzek osatutako Kontseilu Kontsumerista kontsultarako eta aholkularitzarako organoa izango da Kontseilu Errektorearentzat. Eta bere funtzionamendua Kooperatibaren Barne Araudiak arautuko du.
- f) Artikulu honetako c) apartatuan aipatutako helburuak errazago lortu ahal izateko, Batzorde Kontsumerista Lokala zonako edo eskualdeko beste batzuekin elkartu ahal izango da.

### **34. artikulua. Bazkide ez direnei saltzea.**

Kooperatibak eskaintzen dituen ondasunak eta zerbitzuak bazkideei zein bazkide ez direnei eskaintzeko aukera ematen da.

Kooperatibak bazkideentzat ezarrita dauden zerbitzu- eta hornidura-prezio berak eskainiko dizkie bazkide ez diren erabiltzaileei, Kontseilu Errektoreak aurrez ikusten dituen kasuetan izan ezik.

### **34 bis artikulua. Iraupen mugatuko bazkidea.**

Bat. Onarpeneko erabakian hala ezartzen baldin bada, edozein bazkide onar daiteke iraupen mugatuko bazkide gisa, gehieneko denbora-muga hauekin:

- a) Urtebete bazkide kontsumitzaileentzat.
- b) Hiru urte lan-bazkideentzat.

Bi. Iraupen mugatuko bazkideak, gerora –baina ondoren hurrenean– behin betiko kontratatzen badituzte, ez dute probaldirik egin beharko, ez baldin bada behintzat lehen betetako eginkizunez bestelakoetarako.

Hiru. Iraupen mugatuko lan-bazkideek, gutxienez, hasierako ekarpen hau eta sarrerako kuota hau ordaindu beharko dituzte:

- Lan-bazkide mugagabeentzat ezarritakoaren % 10aren balioko kapitalerako hasierako nahitaezko ekarpena.
- Bazkide mugagabeentzat ezarritakoaren % 5aren balioko sarrera-kuota.

Lau. Gerora lan-bazkide mugagabe gisa onartuak baldin badira, jadanik ordaindutako hasierako nahitaezko ekarpenak eta sarrerako kuotak kontuan hartuko dira, lan-bazkide mugagabe gisa egin beharreko hasierako nahitaezko ekarpena eta sarrera-kuota berriak osatzeko. Lan-bazkide mugagabe bihurtzen denean, bai kapitalerako hasierako nahitaezko ekarpena eta bai sarrerako kuota osatu beharko ditu bazkideak, iraupen mugatuko lan-bazkide gisa sartu zen egunean denbora mugagabeko eta aldi baterako alten artean bi kontzeptuontzako araututa zeuden zenbateko-diferentzien arabera.

Sozietatearekiko aldi baterako lotura bukatzearen ondorioz bazkide-izaera galtzen den kasuan, kapitalerako hasierako nahitaezko ekarpena itzultzeko epea, benetan egindako ekarpenaren mugarekin –erretornu kapitalizatuak aparte–, ez da hilabetetik gorakoa izango.

Bost. Hasierakoak ez diren nahitaezko kapitalerako ekarpenak onetsiko balira, iraupen mugatuko bazkideek bazkide mugagabeen baldintza beretan harpidetu beharko dituzte kapital horiek. Hala ere, ordainketa ezingo da exijitu harik eta bazkide mugagabe gisa onartu arte.

Sei. Iraupen mugatuko bazkideak eskubidea izango du lanbide-kalifikazio bereko edo baliokideko lan-bazkideei aitortutako kooperatiba-erretornuaren % 50 jasotzeko. Iraupen mugatuko lan-bazkideak galeren egozpenetik kanpo geratuko dira.

Zazpi. Iraupen mugatuko bazkideek organo sozialetan parte hartzeko, indarrean dagoen bazkide-lotura bat egon beharko du, legeak ezar ditzakeen baldintzak betez.

Kooperatibako organo sozial bateko kidea denean, kontratua bukatzen bazaio, automatikoki utziko du kargua.

Zortzi. Iraupen mugatuko lan-bazkideen eskubide eta betebeharrak sozietarioak eta lanekoak Estatutu hauetan argi eta garbi bereizita ez daudenean, gainerako lan-bazkideentzat ezarritakoaren arabera arautuko dira.

# III. Kapituluia.

## KOOPERATIBAREN EKONOMIA-ARAU BIDEAZ.

### **35. artikulua. Kapital Soziala. Xedapen orokorrak.**

Bat. Kapital Soziala osatuko dute kontzeptu horrengatik bazkideek egindako nahitaezko edo borondatezko ekarpenek eta baja eragin duten eta Batzar Nagusiak itzultzeko onetsi ez dituen bazkideen ekarpenek.

Bi. Titulu izendun bidez egiaztatuko da. Titulu bakoitzak nahitaez jaso beharko ditu:

- a) Eroski S.Coop. izena, eraketako data eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroko inskripzio-zenbakia.
- b) Titularraren izena.
- c) Egin den ekarpenaren zenbatekoa eta, hala dagokionean, ondoz ondoko ordainketen data eta zenbatekoa.

Hiru. Eroski S.Coop.en gutxienerako Kapital Soziala milioi bat eurokoa izango da, oso-osorik harpidetu eta ordaindua.

Lau. Bazkide batek ezin du Kooperatibaren Kapital Sozialaren % 25 baino gehiago eduki.

Bost. Ekarpenak legezko monetan egingo dira, baina Kontseilu Errektoreak hala onesten badu, ondasunak edo eskubideak izan daitezke.

### **36. artikulua. Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpenei buruzkoa.**

Bat. Nahitaezko Ekarpenak izango dira, oro har, bazkideak bere kabuz erabaki ezin ditzakeen guztiak.

Bi. Lan-bazkidearentzat ezartzen den ekarpena 2.098,83 eurokoa izango da Sarrera Kuota gisa 2019ko uztailaren 1 baino geroago izendatu badute hautagai, eta 8.395,31 eurokoa Kapital Sozialari egin beharreko ekarpen gisa; beraz, nahitaezko ekarpena 10.494,14 eurokoa izango da guztira.

Lan-bazkide bakoitzak –mugagabeak nahiz iraupen mugatukoak– kapital sozialari gutxienez 60 euroko ekarpena egin beharko dio gutxienez, eta kapital sozialari egin beharreko ekarpen osagarriak egin beharko ditu –gehienez ere urtebeteko epean–, bere kapitalerako ekarpenak nahikoa ez direnean egotzitako galerei edo ezarritako zehapenei aurre egiteko, eta ez bada aipatutako gutxienerako zenbatekora iristen. Epea amaitzen bada ekarpen osagarriak egin gabe, nahitaez baja emango zaio kooperatibako bazkide gisa.

Hiru. Bazkide kontsumitzaileentzat ezartzen den Nahitaezko Ekarpenaren zenbatekoa 1,20 eurokoa da, baina ezingo dituzte Estatutuetoako 18. artikulua ematen dizkien eskubideak baliatu baldintza hori bete arte.

Lau. Lan-bazkideek oso-osorik harpidetuko dute, probaldia gainditu ondoren, onartuak izaten diren unean indarrean dagoen nahitaezko ekarpena. Indarrean dagoen Sarrerako Kuotaz gainera, gutxienez Kapital Sozialerako nahitaezko ekarpenaren laurdena

ordainduko dute, eta ezingo dituzte 18. artikulua ematen dizkien eskubideak baliatu, harik eta baldintza hori betetzen duten arte.

Nahitaezko Ekarpena ez balute hasieran oso-osorik ordainduko, Kontseilu Errektoreak lan-bazkide gisa sartzeari erabakitzen duenetik gehienez ere 4 urteko epean egin ahal izango dute. Kontseilu Errektoreak emango ditu denbora partzialeko lan-bazkideen ordainketa errazteko arau egokiak, lanaldi osoko bazkideekiko berdintasunezko baldintzetan.

Aurrez ikusitako epeetan ordainketak egiten ez dituen bazkidea berandutza-egoeran jarriko da, hitzartutako epea ez betetzeagatik bakarrik, eta Kooperatibari legezko interesa ordaindu beharko dio, bai eta berandutzagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina ere.

Berandutza-egoeran dagoen bazkideari eskubide politiko eta ekonomikoak ken dakizkioke bere egoera konpondu arte, eta jakinarazpena egiten zaionetik hirurogei eguneko epean ordainketak egiten ez baditu nahitaezko baja eman dakiok, bazkide izateko nahitaezko ekarpena balitz, edota Sozietatetik kanpora dezakete, gainerako kasuetan.

Nolanahi ere, Kooperatibak berandutza-egoeran dagoen bazkidearen kontra jo dezake judizialki.

Bost. Nahitaezko ekarpenentzat joko dira lan-bazkideei erretornu gisa aplikatzen zaizkien soberakinak, baita Batzar Nagusiak erabaki dezakeen izaera bereko besteren bat ere.

Sei. Bazkide kontsumitzaileen ekarpenak ezin izango dira ordaindu, ez eta errebalorizatu ere.

Zazpi. Bazkideen hasierako nahitaezko ekarpenak Batzar Nagusiak alda ditzake, Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera eguneratuz.

### **37. artikulua. Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpenei buruzkoa.**

Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du Kapital Sozialera Borondatezko Ekarpenak onartzea. Erabaki horrek gehieneko kopuru globala, baldintzak eta harpidetzeko epea adieraziko ditu, eta hau ezingo da izan erabakiaren datatik sei hilabetetik gorakoa.

Kontseilu Errektoreak une oro onartu ahal izango ditu bazkideek kapital sozialera egindako borondatezko ekarpenak; nolanahi ere, ezartzen duen ordainketa ezingo da izan Batzar Nagusiak erabakitako kapitalari egindako azken borondatezko ekarpenena baino handiagoa, edo, bestela, nahitaezko ekarpenena baino handiagoa.

Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du Kapital Sozialera Mendeko Finantza Ekarpenei buruzkoa jaulkitzea. Zein ere den bere izena edo formalizazio juridikoa, kapital sozialerako joko da Kooperatibak bazkideekin edo hirugarren batzuekin kontratatzen duen eta bere likidazioa onetsi arte mugaeguneratzen ez den edozein mendeko finantza-ekarpen, eta, kontrako erabakirik ezean, ezingo zaio aplikatu Euskadiko Kooperatiben Legearen 62tik 66ra bitarteko artikuluetan xedatutakoa.

### **38. artikulua. Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko ekarpena.**

Bat. Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Ekarpene edo IPHNE Kooperatibaren Balantzeko Pasiboan beste partidetatik berezita ageriko da, izaera banaezinarekin eta enbargaezinarekin, bere helburuak betetzeko hartzen dituen zorrengeatik ez bada.

Batzar Nagusiak IPHNEa aplikatzeko oinarriko gidalerroak onetsiko ditu urtero, Estatutu Sozialetako 23. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe. Kontseilu Errektorea arduratuko da gidalero orokor horiek kudeatzeaz eta exekututzeaz, eta Batzar Nagusiari funtsen helburuen berri emango dio, haren onespene jasotzeko.

IPHNEa jarduera kontsumeristak eta komunitarioak garatzeko erabiliko da nagusiki.

Aipatutako helburuen artean, IPHNEari esleitutako kopuruak ekimen hauek sustatzeko, egiteko eta finantzatzeko erabiliko dira nagusiki:

- Kontsumitzailearentzako prestakuntza eta informazioa
- Bazkideen eta langileen prestakuntza eta hezkuntza kooperatibismoari, jarduera kooperatiboari eta lanpostuarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuei buruz.
- Kooperatiben arteko harremanak sustatzea, sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo kooperatiben arteko edonolako laguntza-jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatik gastuak estaltzea barne. Kooperatiben arteko harremanen sustapen hori sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo kooperatiben arteko edonolako laguntza-jardueretarako sortutako erakundeen bitartez gauzatu ahal izango da, kooperatiben federazio eta konfederazioak eta arlo horretako bestelako lankidetzak-formak barne;
- Hezkuntza-, kultura-, lanbide- eta laguntza-sustapena, bai eta kooperatibismoaren ezaugarrien zabalkundea ere kooperatiba garatzen den gizarte-ingurunean eta, oro har, gizartean.
- Euskararen erabilera sustatzea
- Enpresa kooperatibo berriak sustatzea euskal kooperatiba-mugimenduak sustatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bati diru-ekarpenak eginez.
- Bazkideen eta langileen prestakuntza eta hezkuntza, sozietate kooperatiboetan emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko politika eraginkorra sustatzeko.
- Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea aldatzeko 7/2024 Legearen 72. artikulua 6. apartatuan aipatutakoak.

Ekimen horiek garatzeko, Batzar Nagusiak adostu ahal izango du funtsak Eroski Fundazioari edo interes orokorreko jarduerak aurrera eramaten dituzten beste erakunde batzuei ematea, baldin eta erakunde horiek funtsak artikuluko honetan adierazten diren helburuekin erabiltzera konprometitzen badira.

Batzorde Kontsumerista Lokala duten udalerrietan, Kontseilu Errektoreak bere Kudeaketa Planean aurrez ikusitako ekintzak egiteko bidera ditzake funtsak.

Bi. Esleipen hauekin eratuko da Funts hori:

- a) Batzar Nagusiak Euskadiko Kooperatiben Legearen 70. artikuluan eta Estatutu hauetako 44. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen dituen soberakin garbien gaineko ehunekoa.
- b) Kooperatibak bere bazkideei diziiplina-bidez ezartzen dizkien zehapenak.
- c) Batzar Nagusiak bere iritzira soberakinen kargura erabakitzen dituen zenbatekoak.
- d) Bere helburuak betetzeko bazkideengandik edo hirugarren batzuegandik jaso diren dirulaguntzak, emariak eta bestelako laguntzak.

Hiru. Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari aurkeztuko dizkio, onets ditzan, indarrean dagoen ekitaldirako Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Ekarpeneraren Inbertsio eta Gastuen Plana eta aurreko Ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa, kontu-egiaztapena egin eta gero. Ekitaldi bakoitzean Funtsean egon diren gastuak edo sarreraren aplikazioak justifikatu beharko dira.

Lau. Aipatutako IPHNEaren zenbateko aplikatu gabea irabazi-asmorik gabeko erakundeei entregatuko zaie, Estatutu hauetan ezarritako interes publikoko helburuetarako erabil ditzaten, zuzkidura onetsi den ekitaldi ekonomikoaren hurrengo ekitaldian.

### **39. artikulua. Ekarpn Sozialen interesak.**

Bat. Lan-bazkideek Kooperatibako Kapital Sozialera egindako ekarpn urtero ordaindu ahal izango dira honako bi muga hauek gainditu ezingo dituen erreferentziako interes total gordinaren arabera:

- a) Urteko % 7,5eko interes gordina,
- b) Kooperatibako emaitza gordin arrunten % bat. Ehuneko hori hau izango da:
  - Emitza Gordin Arrunten % 50, Kooperatibak maila kontsolidatuan hiru ratio hauek betetzen baditu:
    - Enpresen Errentagarritasun Tasa (EET)  $\geq$  % 9
    - Zor Finantzario Garbia (ZFG)/EBITDA  $\leq$  2,5
    - Independentzia-ratioa  $\geq$  1
  - Emitza Gordin Arrunten % 40, Kooperatibak goian adierazitako maila kontsolidatuko bi ratio betetzen baditu.
  - Emitza Gordin Arrunten % 25, Kooperatibak goian adierazitako ratio bat betetzen badu edo ratio bat bera ere ez badu betetzen.

Nolanahi ere, ordainsariak ez ditu legezko mugak gaindituko.

Bi. Batzar Nagusiak urtero erabakiko du bazkideek Kapital Sozialari egindako ekarpnnei interesak aplikatuko zaizkien ala ez. Halaber, aurreko apartatuan ezarritako erreferentziako interesa baino txikiagoa erabaki dezake.

Hiru. Edozein modutara ere, oinarrizko interesen sortzapenaren aldeko akordioa baldintzatua egongo da, Kooperatibak emaitzen birmoldaketa egin aurretik eta aurreko ekitaldietan banatu gabe leudekeen galerak ordaindu ondoren, behar adina emaitza positibo edukitzera, edo beren sortzapena ordaintzeko modua eman dezaketen Borondatezko Erreserbak edukitzera.

Ondore horietarako, behar adinako emaitza positiboak zehaztea artikulu honetako Bat apartatuan adierazitako baldintzetan egingo da, eta Erabilera Libreko Borondatezko Erreserba Funttsaren konturako interesen sortzapena urteko % 7,5 gordinaren mugapenera soilik atxikiko da.

Lau. Horrez gain, Batzar Nagusiak Estatutu hauetako 39 bis artikulua Hiru apartatuan ezarritakoa hartu beharko du kontuan, lan-bazkideek Kapital Sozialari egindako ekarpenen interesen ordainketa erabakitzeko.

Bost. Edozein kasutan, interesen monetizazioa Barne Araudi Kooperatiboan jasotako balantze-ratioak betetzearen ondoriozko mugapenen baitan egongo da.

Nolanahi ere, interesak kapitalizatu egingo dira honako kasu hauetan:

- a) Kooperatibaren Ustiapen Kontuaren doikuntza-arrazoiengatik, haren lan-aurrerakinen maila Lagun Aron indarrean dauden Prestazio Oinarriaren eta Kotizazio Tarifaren % 85ekoa edo txikiagoa denean.
- b) Interesak Erabilera Libreko Borondatezko Erreserba Funttsaren kargura ordaintzen direnean.

Monetizazioak ezingo du –inola ere– Kooperatibari aurreko Bat apartatuan xedatutako baldintzetan egotz dakioken emaitza gordin kontsolidatuaren % 50 gainditu. Ondore horietarako, Mendeko Finantza Ekarpene guztien ordainsaria nahiz Nahitaezko Kapital Sozialean sartzen ez diren beste finantza-tresna batzuen gastutzat joko dira, eta ez dira emaitzan sartuko.

Sei. Baliabideen kudeaketa eraginkorrago baten ondoretarako, Batzar Nagusiak onets dezake Kooperatibaren Funtts Propioetara sartu diren Kapital Sozialari egindako ekarpen guztien interesak aldeztatik ordaintzea, baita Estatutu hauetako 37. artikuluan ezarritako ezaugarriak dituzten jaulkipenean ere, Funtts Propiotzat hartzeko baldintzak betez gero.

Aipatutako baldintzak bete direla ziurtatzea Kontseilu Errektorearen betebeharra izango da, eta, hori dela-eta, interesen ordainketa egiteko erabakia Kontseilu Errektorearen ordainketaren dataren eta ziurtapenaren mende egongo da. Edonola ere, Kontseilu Errektoreak erabakitako ordainketaren ondoren egindako aurreneko Batzar Nagusiak berretsi beharko du erabakia.

### **39 bis artikulua. Funtts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpene ordaintzea.**

Bat. Batzar Nagusiak urtero erabakiko du Funtts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpene ordainsaria sortzen duten ala ez, baina betiere haiek arautzen dituzten baldintzak errespetatuz.

Bi. Mendeko Finantza Ekarpene gisa jaulkitako tituluak Funtts Propiotzat jotzea jaulkipenean bertan jasotzen diren ezaugarrien mende dago.

Hiru. Estatutu etako 39. eta 45. artikuluetan jasotako interesen ordainketari eta erretornuei buruzko erabakia zirkulazioan jarritako Kapital Sozialera egindako Mendeko Finantza Ekarpenean onartutako ordainketa-konpromisoen mende egongo da.

#### **40. artikulua. Alderdi sozialen erabilgarritasuna.**

Bat. Alderdi sozialtzat jotzen da bazkide bakoitzaren jabetzako kapitala (nahitaezkoa nahiz borondatezkoa).

Bi. Alderdi sozialak eskualdatu ahal izango dira:

- a) Maila bereko bazkideen artean, "inter vivos" egintzen bidez, Kontseilu Errektoreak ezarritako baldintzekin bat etorriz. Nolanahi ere, eskualdatzeak ezingo du ekarri bazkide eskualdatzailearen kapitalerako ekarpena bazkide-mota bakoitzarentzat indarrean dagoen gutxieneko ekarpenaren azpitik geratzea.
- b) "Mortis causa" oinordetza dagoenean.

Hiru. Aurreko apartatuko b) kasuan, kausadunek bazkide kontsumitzaile izaera eskuratu ahal izango dute horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badituzte eta eskatzen badute, hiru hilabeteko epean, kausatzailea hiltzen denetik aurrera.

Lau. Dena dela, eskualdatutako alderdi sozialak ordezkatzeko duen kreditua likidatzeko eskubidea izango dute bazkideek, 22. artikuluaen Bi apartatutik ondorioztatzen diren kenketez bestelakorik gabe.

Bost. Ez da onartuko alderdi sozialen transferentziarik bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpena egiteko.

#### **41. artikulua. Sarrerako kuota.**

Batzar Nagusiak ezarriko du urtero lan-bazkide berriek Sarrerako Kuota gisa eman beharreko zenbatekoa, irizpide hauen arabera:

- a) Nahitaezko gutxieneko Ekarpeneen % 25ekoa izango da gehienez ere.
- b) Ez da Kapital Sozialaren zatia izango, eta ezingo da itzuli.
- c) Nahitaezko Erreserba Funtsean txertatuko da.

#### **42. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa.**

Ekitaldi ekonomikoa otsailaren 1etik urtarrilaren 31ra da.

#### **43. artikulua. Emaitzen zehaztapena.**

Ekitaldiko Emaitzen kontuaren saldo hartzekoduna izango da Soberakin Garbia.

Aurreko urteetako konpentsatu gabeko galerarik egongo balitz, Soberakin Garbiari egotzi beharko zaizkio.

Soberakin Garbiari aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko erabili behar diren kopuruak eta zerga galdagarriak kendu ondoren, Soberakin Erabilgarria lortuko da.

#### **44. artikulua. Nahitaezko Funts Sozialetarako esleipena.**

Soberakin Erabilgarrietatik, ekitaldi bakoitzean gutxienez % 30eko kopuru globala bideratuko da NEFerako eta IPHNERako; gutxienez % 10 IPHNERako izango da, eta gainerako % 20, berriz, NEFerako.

#### **45. artikulua. Soberakin Erabilgarrien aplikazioa.**

Bat. Aurreko artikuluan ezarritako banaketak egin eta gero gelditzen den Soberakin Erabilgarrien saldoa aplikatuko da Kooperatibaren Erreserba eta Erretornuetara, Batzar Nagusiak ekitaldi bakoitzerako adostutakoarekin bat.

Bi. Erretornu Kooperatiboa banatzea adostuko balu Batzarrak, emaitzen % 10ekoa izango litzateke gutxienez erretornu hori, eta Kapital Sozialari gehituko zaio, nahitaezko ekarpenaren izaerarekin.

Hiru. Lan-bazkideentzako Erretornu Kooperatiboa haiek egindako zerbitzuaren proportzioan egiaztatuko da, ekitaldian eta aurreko bi ekitaldietan jasotako lan-aurrerakinen baturak neurtuta, hurrengo apartatuan aipatzen den kasuan izan ezik.

Lau. Hiru baino lan-indize altuagoa duten bazkideek aipatutako indizeari dagozkion erretornuak bakarrik eskuratu ahal izango dituzte.

Bost. Erretornuen aplikazioa erabaki ahal izateko, Batzar Nagusiak Estatutu hauetako 39 bis artikulua Lau apartatuan adierazitakoa hartu beharko du kontuan.

#### **46. artikulua. Galeraren egozpena.**

Galerak egozteko, Batzar Nagusiak hartutako erabakiari jarraituko zaio:

- a) Erabilera libreko edo murriztutako Borondatezko Erreserba Funtsei, Batzar Nagusiak zehaztutako galeren kopurua.  
Kooperatibak 2019ko ekitaldiko emaitzetatik abiatuta hornitutako Borondatezko Erreserba Funtse murriztuen kasuan, funts horren % 50era arte egotzi ahal izango da gehienez ere.
- b) Nahitaezko Erreserba Funtseari, gehienez ere lege ezarritako kopurua.
- c) Banakako saldoak dituen Aurreko Ekitaldietako Emaizta Negatiboak izeneko Erreserba Negatibo bati (Kooperatibaren Legeak "kontu berezi" gisa deitua). Erreserba hori etorkizuneko Emaizta positiboaren kargura konpentsatu beharko da, gehienez ere 5 urteko epearen barruan. Epe hori igarotakoan konpentsatu gabe geratzen diren galerak bazkide bakoitzaren kapitalaren zenbatekoa kenduz ordainduko dira.

Saldoak indibidualizatu egingo dira lan-bazkidearen hiru urteko urte anitzeko oinarri konputagarriaren arabera.

Aurreko Ekitaldietako Emaizta Negatiboaren kontu horretan banakako izaeraz agertzen den saldoa konpentsatu egingo da kapital sozialari egiten zaizkion ekarpenekin, bazkide bati baja emanez gero, eta, saldoa negatibo mantenduz gero, ez da hartuko baja hartu duen bazkideak Kooperatibarekiko duen zor gisa, bajaren arrazoiak justifikatua izan ala ez.

- d) Bazkideei, 45. artikuluan erretornuak banatzeko kontuan hartutako proportzio berean. Bazkide bakoitzari egotzitako galerak Legean aurreikusitako moduren batean ordainduko dira, Batzar Nagusiak erabakitakoaren arabera.

- e) Bazkidearen kapitalerako ekarpenak ez badira nahikoa aurreko c) eta d) apartatueta xedatutakoaren arabera egotzitako galerei aurre egiteko, bazkideak kapitalerako ekarpen berriak egin beharko ditu galera horiek konpentsatzeko eta estatutueta ezarritako gutxieneko kapitalera egindako ekarpenaren zenbatekora iristeko.

#### **47. artikulua. Balantzearen eguneratzea.**

Bat. Zuzenbide erkideko Sozietateentzat ezartzen diren mozkin berdinekin eta termino beretan erregularizatu ahal izango da Kooperatibaren balantzea, Legean balantze-erregularizazioaren emaitzaren xedeari buruz ezartzen denaren kalterik gabe.

Bi. Aipatutako emaitza hori erreserbak –nahitaezkoak zein borondatezkoak– handitzeko erabiliko du kooperatibak, ekitaldi batean edo gehiagotan, berari komenigarrien iruditzen zaion proportzioan. Hala ere, konpentsatu gabeko galerak dituenean, galera horiek konpentsatzera bideratuko du lehenik erregularizazioaren emaitza, eta gainerakoa, berri, lehen adierazitako helburuetara.

#### **47. bis artikulua. Solidaritate-funtsa**

Bat. Lan-bazkideek Solidaritate Funtserako ekarpenak egingo dituzte, helburu nagusi batekin: kapitalerako ekarpen berriak egin behar dituzten kooperatibako lan-bazkideei laguntzea egotz daitezkeen galerak konpentsatzen eta estatutueta ezarritako kapitalerako gutxieneko nahitaezko ekarpenak lortzen.

Bi. Solidaritate Funtsa lan-bazkideen kontsumo gordinaren aurrerakinaren % 1eko gehieneko zenbateko baliokidearekin hornituko da.

Hiru. Kooperatibak bere lan-bazkideen izenean ordainduko dizkio Fundazioari Solidaritate Funtzari egindako ekarpenak, “Solidaritate Funtzaren Kuota” kontzeptuarekin.

## IV. Kapitularia.

### KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETARI BURUZKOA.

#### **48. artikulua. Organo Sozialak eta Zuzendaritza.**

Bat. Hauek izango dira sozietatearen organoak:

- a) Batzar Nagusia.
- b) Kontseilu Errektorea.
- c) Kontseilu Soziala.
- d) Jagoletza Batzordea.
- e) Errekurtso Batzordea.

Bi. Kooperatibaren kudeaketa Kontseilu Errektoreari dagokio, Batzar Nagusiaren erabakiekin eta lege eta estatutuetao araudiekin bat.

Hiru. Zuzendaritza Nagusiak, Kooperatibaren ohiko trafiko eta norabideari dagozkion gaitara bere eskumena zabalduz, beteko ditu, betiere Kontseilu Errektorearen izenean, hari dagozkion ekimen guztiak, 64. artikuluan ezarritako mugen barruan eta eman zaizkion ahalmenak eta ahalordeak erabiliz.

Lau. Kooperatibak bere gain hartzen du kooperatibako organoetan sexu, arraza edo sinesmenagatik bazkideak ez diskriminatzearen aldeko kudeaketa aktiboa.

Halaber, berdintasuna sustatzeko neurriak ezarriko dira arrazoi berengatik. Gainera, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko neurriak ezarriko dira, genero-berdintasuna sustatzeko.

#### **49. artikulua. Delekatuen Batzar Nagusia.**

Bat. Bazkideen ordezkari diren Delekatuek osatutako Batzar Nagusia borondate soziala adierazten duen organo gorena da, Estatutu hauek eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dizkion gaitan.

Bazkide guztiak, baita disidenteek eta batzarrean parte hartu ez dutenek ere, bete beharko dute Batzar Nagusiak erabakitakoa, 53. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Bi. Batzar Nagusiak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

Ohiko Batzar Nagusiaren helburuak hauek dira: kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak onestea (hala badagokio), soberakinen edo, beharko balitz, galeren egozpenei buruz erabakitzea, eta Kooperatibaren politika nagusia zehaztea. Ohiko Batzarrearen gaitzerrendan, ohiko gaiez gain, Kooperatibari dagokion beste edozein gai ere plazaratu ahal izango da.

Gainerako guztiak ezohiko Batzarrak dira.

Hiru. Kooperatibari dagozkion gai guztiak Batzar Nagusian eztabaidatu ahal izango dira, eta Batzarrearen akordioa nahitaezkoa izango da jarduera hauetarako:

- a) Bozketa sekretu bidez izendatzea eta errebokatzea Kontseilu Errektoreko, Kontseilu Sozialeko, Errekurtso Batzordeko eta Jagoletza Batzordeko kideak eta Likidatzaileak, eta, behar izanez gero, haien aurkako erantzukizun-akzioa erabakitzea.
- b) Kontu-auditoreak izendatzea eta errebokatzea, kausa zuzena baldin badago.
- c) Kudeaketa sozialaren azterketa egitea, Kontuak onestea, Soberakin Garbiak banatzea, Erretornu kooperatiboak aplikatzea eta Galerak egozteak, betiere Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.
- d) Kapital Sozialari egin beharreko nahitaezko ekarpen berriak erabakitzea eta izaera orokorreko borondatezko ekarpenak onartzea.
- e) Hala badagokio, ekarpenen errebalorizazioa adostea.
- f) Obligazioak, partaidetza-titulua edo partaidetza bereziak jaulkitzea.
- g) Kooperatibaren politika nagusia zehaztea.
- h) Estatutu Sozialak aldatzea.
- i) Kooperatibaren Barne Araudia onestea eta aldatzea.
- j) Sozietatearen bat-egitea edo zatiketa erabakitzea.
- k) Kooperatiba desagitea onartzea, likidatzaileak izendatzea eta ezeztatzea, eta likidazioa onestea.
- l) Kontuak eskatzea noiznahi beren jarduketari buruz Errekurtso Batzordeko kideei, Jagoletza Batzordeko kideei, Kontseilu Errektoreko kideei eta, organo honen bitartez, Zuzendaritzari.
- m) Kooperatibaren ekonomia, antolamendu edo funtzionamenduko egituraren funtsezko aldaketak sor dezakeen erabaki oro.
- n) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba-korporazioak eta antzeko erakundeak eratzea, eta horiei atxikitzea eta horietatik banantzea.
- o) Berriaz izendatutako organoek, Estatutu hauen eta legezko eta erregelamenduzko arauen arabera, haren irizpidera jar ditzaketan bestelako gai guztiak.

Lau. Artikulu honen arabera, Batzar Nagusiaren erabakia nahitaezkoa den gaietan, Batzar Nagusiak ezin izango du erabakia beste baten esku utzi.

Bost. Batzar Nagusiak eztabaidatu ahal izango du Kooperatibarentzat interesgarri izan daitekeen edozein gai, baina Estatutu hauek beste organo sozial baten eskumen eskusibokotzat jotzen ez dituzten gaietan bakarrik hartu ahal izango ditu nahitaezko erabakiak.

## **50. artikulua. Delegatuen Batzar Nagusiaren osaera.**

Batzar Nagusirako hautatutako Delegatuen kopurua gehienez ere 500ekoa izango da; delegatuen % 50 bazkide kontsumitzaileen Delegatuak izango dira, eta beste % 50 lan-bazkideenak. Delegatuak, Kontseilu Errektorearekin, Jagoletza Batzordearekin eta Errekurtso Batzordearekin batera, Batzar Nagusiaren legezko hautesleen multzoa osatzen dute. Deialdian parte hartuko dute, halaber, Zuzendaritza Nagusiak eta Kontseilu Sozialaren Lehendakariak, ahotsarekin baina botorik gabe, eta Delegatu gisa hautatuak izan daitezke.

## **51. artikulua. Delegatuen Batzar Nagusirako deialdia.**

Bat. Ohiko Batzar Nagusia ekitaldi ekonomikoa itxi eta hurrengo sei hilabeteen barruan bildu beharko da.

Epe hori deialdia egin gabe igarotzen baldin bada, Jagoletza Batzordeak Kontseilu Errektoreari eskatu beharko dio egin dezan, eta Kontseilu Errektoreak ez badu

eskaera hartu ondorengo hamabost egunen barnean deitzen, Legeak adierazten dituen jardunbideak jarraitu beharko dira.

Era berean, eta aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, legezko epea igaro eta Ohiko Batzarra egiteko deialdia egin ez bada, edozein bazkidek eskatu ahal izango dio dagokion aginte judizialari deialdia egin dezan. Edozein modutara ere, deialdia egiteko eskatzen duen lehenengo eskaera baino ez du izapidetuko aginte judizialak.

Kontseilu Errektoreak Ohiko Batzar Nagusia deitzeko legezko epea luzatzea eska diezaioke Kooperatiba inskribatuta dagoen Erregistroaren mendeko aginteari.

Bi. Ezohiko Batzar Nagusirako deialdia Kontseilu Errektorearen ekimenez edo Jagoletza Batzordearen eskariz edo gutxienez boto guztien % 20 ordezkaten duen Delegatu-kopuruak administrazio-organoari modu fede-emaila batean eskatuta egingo da, bertan sartuz gai-zerrenda eta eztabaidatzeko proposatutako gaiak. Batzar Nagusirako deialdia ez balitz eskaera jasotzen denetik hogeita hamar eguneko epean egingo, eskatu ahal izango da epaileak deitzea, aurreko apartatuan aurrez ikusitakoaren arabera.

Hiru. Aurreko apartatuetan aurrez ikusitako kasuetan, Batzar Nagusirako deialdia egiten duen aginte judizialak izendatuko du batzarra gidatuko duen bazkidea.

Lau. Deialdia –bertan jasoko da Prestamen Batzarretarako ere– sozietatearen egoitzan eta lantoki bakoitzean iragarri egingo da, eta, horrez gain, Kooperatibaren webgune korporatiboan argitaratuko da.

Delegatuen Batzar Nagusia egingo den data baino gutxienez hamar egun lehenago iragarriko da deialdia, eta Batzar hori, gehienez ere, deialdia baino bi hilabete geroago egin beharko da.

Bost. Deialdian gutxienez, data, ordua (lehenengo edo bigarren deialdikoa den adieraziz) eta bilera egingo den lekua adierazi beharko dira, eta argi eta zehatz aipatuko da gai-zerrenda zein den.

Sei. Lehenengo eta bigarren deialdien arteko tarte ordu-erdikoa izango da.

Zazpi. Gai-zerrenda Kontseilu Errektoreak ezarriko du, baina Jagoletza Batzordeak edo % 10 ordezkaten duen Delegatu-kopuru batek edo 500 bazkideren kopuruak Kontseilu Errektoreari idazki bidez proposatutako gaiak sartu beharko ditu. Proposamenak edozein unetan aurkeztu ahal izango dira, baina egiten den lehenengo Batzarrean deialdia egiten denetik bosgarren eguna bukatu baino lehenago aurkezten direnak onartuko dira soilik. Kontseilu Errektoreak, kasu horretan, gai-zerrenda berria publiko egin beharko du, Batzarra egin baino lau egun lehenago gutxienez, deialdia egiteko ezarria dagoen modu berean.

Zortzi. Batzarrak egoitza soziala dagoen udalerrian bertan egingo dira, edo, hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruko beste leku batean, Kontseilu Errektoreari irisgarritasun- eta antolamendu-irizpideak kontuan hartuta egokia iruditzen zaionean, edo, bestela, aurreko Batzar Nagusi batean adierazitako beste edozein herritan.

## **52. artikulua. Delegatuen Batzar Nagusiaren funtzionamendua.**

Bat. Batzar Nagusia balio osoz eraturia geldituko da, lehenengo deialdian, boto sozialen erdia baino gehiago bertan daudenean edo ordezkaturata daudenean, eta, bigarren deialdian, berriz, gutxienez boto sozialen % 10 edo 100 boto sozial daudenean.

Kooperatibako Lehendakartzari dagokio edo bere ordezkari aritzen denari, Kontseilu Errektorearen Idazkaritzak lagunduta, Batzar Nagusian dauden edo ordezkaturata dauden bazkideak edo elkartzekideak zenbatzea eta, hala badagokio, batzarra eraturia gelditzea dela adieraztea.

Bi. Batzar Nagusia Lehendakartzak gidaturiko du, eta bestela, Kontseilu Errektorearen Lehendakariordetzak, eta, halakorik ezean, Batzar Nagusiak hautaturakoak. Idazkaritzalanak Kontseilu Errektorean idazkaritza-lanetan aritzen denak egingo ditu edo Estatutuetan bere ordezkaturat jotzen denak, eta, halakorik ezean, Batzarrek hautaturakoak.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera, Batzarreko Lehendakartzat edo Idazkaritzat jokatu behar dutenei zuzenean eragiten dieten gaiak gai-zerrendan azaltzen direnean, Batzarrek erabakiko du nork bete behar dituen funtzio horiek.

Edozein modutara ere, Batzarreko Lehendakartzari dagokio eztabaidak zuzentzea, Batzarrean ordena mantentzea eta Legeak galdaturako formalitate guztiak betetzen direla ziurtatzea.

Hiru. Bozketak sekretuak izango dira organo sozialetako kideak hautatu edo errebokatu edo organo sozialetako kideen aurkako erantzukizun-akzioa egikaritu behar denean, bai eta akzioaren egikartzari amore eman ala uko egin behar zaionean ere. Bozketa sekretu bidez hartuko dira, halaber, gai-zerrendako edozein gairi buruzko erabakiak, bertaraturakoan edo ordezkaturien % 10eko botoek hala eskatzen dutenean.

Lau. Deusezak izango dira gai-zerrendan agertzen ez diren gaiak buruzko erabakiak, salbu eta beste Batzar Nagusi bat deitzeko erabakia, kanpoko pertsona batek egindako kontuak zentsuratzekoa, eta Batzar Nagusia luzatzeko erabakia, bai eta Lege honetan aurrez ikusitakoak ere.

Bost. Batzar Nagusira joan ahal izango dira halaber, ahotsarekin baina botorik gabe, eta Kontseilu Errektoreak hara deitzen baditu, Delegaturak izan ez arren Kooperatibaren jarduerarako interesgarriak izan daitezkeen pertsonak, Batzarrean bertaraturakoan botoen erdiak kontrakorik adierazten ez badu behintzat. Gai-zerrendan kargu sozialak hautaturako direla jarriko balu, Batzarra egin bitartean Delegaturak bakarrik egon ahal izango dira bertan, esku hartzeko kasuei buruz ezarritakoari kalterik egin gabe.

Sei. Delegaturak boto sinple bana izango dute, bai eta Delegaturien Batzar Nagusian hautesle diren gainerako guztiak ere. Ez dago boto erabakitzailerik edo kalitatezkorik.

Zazpi. Batzar Nagusian botoa delegatu daiteke. Batzarkide bakoitzak ezingo du boto delegatu bat besterik izan, bere ordezkari propioaz gain. Botoa delegatzeko aukera izateko, norberaren idatziz egin behar da edo notario-aktaren bidez, edo Kooperatibaren Idazkaritzara bertaraturat edo idazkiaren sinadura legitimatuz edozein agintari eskudunen aurrean edota beste modu fede-emaile bidez. Botoa delegatzeko aukera Batzar jakin

baterako baino ezingo da eman. Jagoletza Batzordeari dagokio ordezkaritza egiaztatzen duen idatziaren egokitasunari buruz erabakitzea.

Zortzi. Estatutuetan aurrez ikusitako egoeretan izan ezik, Batzar Nagusiak balio osoz emandako botoen erdiak baino gehiago hartuko ditu erabakiak; ondore horietarako boto zuriak eta abstentzioak ez dira kontatuko. Bildutakoen eta ordezkatuena botoen bi hereneko gehiengoa beharko da Estatutuak aldatzeari, bat egiteari, zatitzeari, eraldatzeari eta desegiteari buruzko erabakiak hartzeko, baldin eta bildutakoen eta ordezkatuena botoen kopurua Batzar Nagusiko Delegatu guztien % 75 baino txikiagoa bada. Balio osoz emandako botoen erdia baino gehiago aski izango dira kapital sozialera nahitaezko ekarpen berriak eskatzeko eta sarrerako kuoten edo aldizkakoen zenbatekoak aldatzeko edo ezartzeko.

Bederatzi. Batzar Nagusiko Idazkaritzari dagokio bileraren akta idaztea. Akta horretan adieraziko dira eztabaida non eta noiz egin den, bertaratutako bazkideen kopurua, lehenengo edo bigarren deialdian egin den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jasotzea eskatu duten esku-hartzeak, hartutako erabakiak eta bozketen emaitzak. Batzar Nagusiko Lehendakariak eta Batzarrean bertan izendatutako hiru bazkidek onetsiko dute akta hamabost eguneko epean. Erabakiek hartutako une beretik eragingo dituzte ondoreak.

Hamazortzi. Kontseilu Errektoreak bideokonferentzia-sistema bat edo antzeko beste sistema bat gaitu ahal izango du, irudiaren eta soinuaren bi norabideko eta aldebereko komunikazioa ahalbidetzen duena, bai eta ikusmen-, entzumen- eta ahozko elkarrekintza ere, geografikoki urrun dauden bazkideek parte har dezaten eta akordioak balio osoz hartzeko borondatea adieraz dezaten.

### **53. artikulua. Batzar Nagusiaren erabakien aurkaratzea.**

Bat. Artikulu honetan ezarritako arauen arabera eta epeetan aurkaratu ahal izango dira Batzar Nagusiak hartutako erabakiak, baldin eta Legearen aurkakoak badira, Estatutuen aurkakoak badira, edo Kooperatibaren interesak kaltetzen badituzte, bazkide baten edo gehiagoren nahiz hirugarren batzuen mesedetan. Baina eraginik gabe utzitako edo baliozko beste batekin ordeztutako erabakiak ezin izango dira aurkaratu, Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritakoaren arabera ez eta Lege horrek aurrez ikusitako gainerako kasuetan ere.

Bi. Hauek dute erabakiak aurkaratzeko akzioak egiteko legitimazioa: Batzar Nagusiko delegatu guztiek, Kontseilu Errektoreko eta Jagoletza Batzordeko kideek, edozein bazkidek eta interes legitimoa duten eta bazkide ez diren hirugarrenek.

Hiru. Erabakiak aurkaratzeko akzioa urtebeteko epean iraingiko da, beren kausa edo edukiarengatik ordena publikoaren aurkakoak diren erabakien kasuan izan ezik. Artikulu honetan aurreikusitako iraingipen-epeak erabakia hartzen den egunetik aurrera zenbatuko dira, edota, inskribagarria izango balitz, Kooperatibaren Erregistroan inskribatzen den datatik aurrera.

Lau. Erabakiak aurkaratzeko prozedura Kapital Sozietateen Legean eta hura arautzen duten gainerako arauetan ezarritako arauetara egokituko da, salbuespen batekin: demanda-idazkian aurkaratutako erabakia etetea eskatzeko, eskatuko da Jagoletza

Batzordeak eskatzen duena izatea, edo Batzarreko boto guztien % 10 ordezkatzeko duen delegatu-kopurua.

Bost. Organo sozialen aurrean Estatutu hauetan edo Euskadiko Kooperatiben Legean aurrez ikusitako errekurtsoak jartzeak akzioen preskripzio- edo iraungitze-epeak eteten ditu.

#### **54. artikulua. Prestamen Batzarrak.**

Bat. Indarrean dagoen Lankidetzari buruzko legerian xedatutakoaren babesean, Prestamen Batzarrak osatzen dira, bazkideen parte-hartzea hobetzeko asmoz. Bazkide bakoitzak bere burua baino ezingo du ordezkatu Prestamen Batzarrean.

Bi. Printzipioz, gutxienez bi Prestamen Batzar egitea ezartzen da. Horietako bata bazkide kontsumitzaileentzat egingo da, eta bestea, lan-bazkideentzat; bazkide-errodak eguneratuta edukitzera konprometitzen da Kontseilu Errektorea.

Kontseilu Errektoreak, bazkideen parte-hartze benetakoago bat erraztearren, aldatu ahal izango du Batzarren kopurua, artikuluko honetako Sei apartatuak aipatzen dituen proportzioak mantenduz.

Hiru. Prestamen Batzar bakoitzeko bazkide kontsumitzaileen zirkunskripzioaren barruan, Kontseilu Errektoreak erabakiko du Batzara zein udalerritan egin.

Kontseilu Errektoreak urtero erabakiko du zein udalerritan egin lan-bazkideen Prestamen Batzara, Kontseilu Sozialaren proposamenez.

Lau. Kontseilu Errektoreak deituko ditu Prestamen Batzarrak, eta ezingo dira egin argitaratu eta hurrengo hamar egun baino lehenago, ezta Batzar Nagusia egin baino aurreko bi egunetan ere.

Kontseilu Errektorearen Lehendakariak gidatuko ditu Prestamen Batzarrak. Eta Kontseilu Errektoreak erabakiko du Prestamen Batzarretako Idazkaritza zein izango den.

Lan-bazkideen Prestamen Batzarretan, Lehendakariak bere kargua delegatu ahal izango du Kontseilu Errektoreko edo Kontseilu Sozialeko kideren batengan. Bazkide kontsumitzaileen Prestamen Batzarretan, berriz, Lehendakariak bere kargua delegatu ahal izango du Kontseilu Errektoreko edo Kontseilu Kontsumeristako kideren batengan.

Bost. Delegatu hautatu ahal izango dira Prestamen Batzarrari dagozkion bazkideak, eta bakoitzaren Prestamen Batzarrean boto gehien eskuratzen dituzten hautagai-zerrendak hautatuko dira. Ordezkoak hautagai-zerrendetan gehiengoan lortu ez dutenen artean hautatuko dira.

Hautatutakoek Batzarrerara beren botoa eramango dute, Batzar Nagusira joateko eskubidea duen besteren batek utzitako delegazioaz gain, eta ez dute manuzko agindurik izango.

Sei. Mugape bakoitzeko bazkide kontsumitzaileen Delegatuen banaketa azkeneko ekitaldi ekonomikoan lortutako salmenta-bolumenean eskuratutako kopuruaren arabera erabakiko da, eta mugape edo eskualde horretako bazkide-kopuruaren arabera; kontuan

izanik, halaber, bazkide kontsumitzaileen Delegatu guztiak banatzeko salmenta-kopuruari % 70eko ponderazioa emango zaiola eta bazkide-kopuruari, berriz, % 30ekoa.

Zazpi. Hiru urtekoa izango da Delegatuen agintaldia, eta berriro hauta daitezke.

Zortzi. Prestamen Batzarrak berak onetsiko du akta, batzarraren bukaeran, eta bertan jasoko dira Batzarra non eta noiz egin den, bertaratu den bazkide-kopurua, lehenengo edo bigarren deialdian egin den, jasota gelditzeko eskaera egin dutenen hitzak, eta, hala beharko balitz, Delegatuen izen-abizenak. Batzarraren Lehendakaritzak eta Idazkaritzak sinatutako akta-ziurtagiriak egiaztatuko ditu Delegatuak Batzar Nagusiaren aurrean.

Bederatzi. Delegatu bidezko Batzar Nagusiak egoteak ez du bazkideek informatua izateko duten eskubidea murrizten.

Hamar. Artikulu honetan eta Estatutu hauetan Prestamen Batzarren deialdiari eta funtzionamenduari buruz aurreikusita ez dagoen guztian, Batzar Nagusiei buruz ezarritako arauak beteko dira, aplikagarriak diren heinean, baita akordioak hartzeko bideokonferentzia-sistemari edo antzeko beste sistema bati buruz xedatutakoa ere.

## **55. artikulua. Kontseilu Errektorearen izaera eta eskumena.**

Bat. Kooperatiba-Sozietatea gobernatu, kudeatu eta ordezkatzeko duen organoa Kontseilu Errektorea da, eta Legeak, Estatutuek eta Batzar Nagusiak ezarritako politika nagusira mugatuta dago.

Bi. Kontseilu Errektoreari dagozkio Legeak edo Estatutuek beste organo sozialei esleitzen ez dizkieten ahalmenak, Batzar Nagusian edozein gairen eztabaida eta erabakia hartzeko eskubideari kalterik egin gabe.

Oro har, ahalmen hauek dagozkio Kontseilu Errektoreari:

- a) Bazkideak onartzea eta izaera hori etetea, Zuzendaritzak erabaki eta gero.
- b) Bazkideak kanporatzeari buruzko erabakia hartzea.
- c) Kooperatibaren ordezkaria izatea, erantzukizun osoz, edozein motatako ekitaldi eta kontratutan.
- d) Zuzendaritza Nagusia izendatzea eta bereiztea, eta haren proposamenez Saileko Zuzendaritzak edo Administrazio Organoko kideak ere izendatzea, haien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak zehaztuz.
- e) Kooperatibaren martxa antolatzea, gidatzea eta aztertzea, eta Batzar Nagusiari Kooperatibaren Barne Araudia edo Araudiak proposatzea.
- f) Xede soziala gauzatzeko beharrezkoak edo komenigarriak liratekeen ekintza eta kontratuak egitea, barruan hartuz ondasun higiezinak erostekoak edo besterentzekoak, eskubide errealak eratzekoak –baita hipotekak ere–, eta bereziki errentamendukoak, eta Estatutu hauek Kooperatibari baimendutako negozio- eta eragiketa-mota guztiei buruz ebaztea.
- g) Kooperatibari komeni dakizkiokoen eta Batzar Nagusiari erreserbatuak ez dauden kredituen edo maileguen eragiketak erabakitzea.
- h) Entitate publiko edo pribatuen aurrean abalak ematea, eta, halaber, zuzenbidez onarturiko gainerako edozein motatako tituluak, zor publikokoak edo balore higigarri nahiz higiezinak, erosi, saldu, harpidetu eta gordailutzea, egoki iruditzen zaion eran eragin ditzakeelarik.

- i) Ekarpenen harpidetzarako eta bonuak eta obligazioak jaulkitzeko beharrezkoa dena erabakitzea, Batzar Nagusiak zehaztutako politika nagusiaren arabera.
- j) Funts erabilgarrien inbertsio zehatza erabakitzea, Batzar Nagusiaren erabakiak errespetatuz, aurrekontuak eratztea, gastuak baimentzea eta Kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean komenigarri iruditzen zaizkion ahalmenak haien esku utziz.
- k) Kontseilu Errektoreak ekitaldi sozialean egindako kudeaketa azaltzen duen Memoria eta urteko Kontuak Ohiko Batzar Nagusiari urtero aurkeztea eta Soberakin garbieran banaketa proposatzea.
- l) Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak deitzea, eta han hartutako erabakiak exekutatzeko.
- m) Epaitegi eta Auzitegi arrunt edo berezien aurrean eta Estatuaren eta Lurralde Administrazio Autonomoen, Lurraldeen eta Udalerrien bulego, agintari, korporazio edo organismoen aurrean Kooperatibari dagozkion eskubideak edo akzioak erabiltzeko buruz komenigarri iruditzen zaiona erabakitzea, eta halaber errekurso arrunt nahiz bereziak jartzeko buruz, gai hauetan Kooperatibaren ordezkariak eta defentsa eraman dezaten ordezkariak, prokuradoreak edo letratuak izendatuz, haiei ahalmen egokiak behar den eran emanez, baita edozein moldetako adiskidetzetan, espedientetan, auzitan, erreklamazioetan, errekursoetan edo jarduketan eta edozein prozedura-egoeratan, prozedura bertan behera uztea eskatzeko eta beharrezkoa den orotarako, baita zabaltasun osoz judizialki amore emateko ere.
- n) Ondore zehaztetzarako edo negozio sozialaren arlo jakin bat eramateko zenbait pertsona eskuordetzea.
- o) Estatu hauen interpretazioaz sor daitezkeen zalantzak argitzea eta egon daitezkeen hutsuneak betetzea, egingo den lehenengo Batzar Nagusiari horren berri emanez.
- p) Kooperatibako delitu-prebentziorako plana egitea; plan horren jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea; eta berariazko bitartekoak onestea Kooperatiba indarkeria sexistatik gabeko esparrua izan dadin.
- q) Estatu hauen bereziki jasotakoak.

Ezingo da inoiz ere delegatu Batzar Nagusiari kontuak ematea eta balantzeak aurkeztea, ez eta Batzarrak Kontseilu Errektoreari ematen dizkion ahalmenak ere, baldin eta hark espresuki baimentzen ez badu.

Kontseilu Errektoreari dagozkion betebeharren zehaztapen honek jakinarazteko helburua du, eta ez du murriztapenik egiten, inola ere, Kontseiluak gobernatzeko, gidatzeko eta Kooperatibaren interesak administratzeko dituen ahalmenetan, horien ardura ez baldin bazaie beste organo batzuei bereziki esleitu behintzat.

Hiru. Kontseilu Errektorearen Lehendakariak Kooperatibakoa ere izango da, eta berak izango du Kooperatibaren legezko ordezkariak, bere jarduketan Batzar Nagusiak eta Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiekin bat ez badator izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

## **56. artikulua. Kontseilu Errektorearen osaera.**

Bat. Kontseilu Errektorea Batzar Nagusiak hautatutako hamabi titularrek osatzen dute.

Kontseilu Errektoreko kideak hautatzeko, bazkide kontsumitzaileen sei ordezkari eta lan-bazkideen beste sei ordezkari hautatuko dira. Ordezkoak hautatzeko, erlazio bera mantenduko da.

Lan-bazkideak ezingo dira aurkeztu Kontseilu Errektorera bazkide kontsumitzaileak ordezkatzeko, ezta bazkide kontsumitzaileak lan-bazkideak ordezkatzeko ere.

Bi. Batzar Nagusiak bozketa sekretu bidez hautatuko ditu, bazkideen artean, Kontseilu Errektorearen titularrak eta ordezkoak, lau urterako, eta berriro ere hautatuak izan daitezke. Kontseilu Errektorea sei kideko txandatan berrituko da.

Hiru. Kontseiluak berak Kontseilu Errektorerako hautatutakoen artean aukeratzeko dira karguak –Lehendakaritza barne–, egiten duen lehenengo saioan. Karguen agintaldiaren iraupena bi urtekoa izango da. Lehendakaritza, Lehendakariordetza eta Idazkaritza hautatuko dira.

Lau. Lehen aipatutako karguren bat behin betiko hutsik geratuz gero, Kontseilu Errektoreko kideen bidez ordeztuko da, izendatutako ordezkapenak sartu eta gero. Aldi baterako hutsunea bada, berriz, Lehendakariordetzak ordeztuko du Lehendakaritza, eta horrek delegatutako ahalmenak eskuratzeko ditu. Bien aldi baterako hutsunea gertatuko balitz, batzordekide zaharrenak hartuko du Lehendakaritzaren ardura. Idazkaritzako hutsuneak, berriz, kontseilari gasteenak beteko ditu.

## **57. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua.**

Bat. Kontseilu Errektorea hilean behin bilduko da gutxienez, edo ezohiko deialdian bere kideetako baten eskaera arrazoituaren ondorioz. Lehendakaritzak hamar eguneko epean eskaera onartuko ez balu, eskaera arrazoitua egin duenak egin dezake deialdia, deialdiaren alde gutxienez Kontseiluaren heren baten atxikimendua lortzen badu.

Kontseiluko kideek nahitaez joan behar dute saioetara, eta arrazoi justifikaturik badute soilik huts egin ahal izango dute.

Deialdia Lehendakaritzak egingo du, idatziz, bilkuraren lekua, eguna, ordua eta aztertze gaiak zehaztuz, zortzi egun lehenago. Larrialdi-kasuetan, telegrafikoki egin ahal izango da eta hogeita lau ordu lehenago.

Bi. Kontseilu Errektorearen bilkuretan Zuzendaritza Nagusiak eta Kontseilu Sozialaren Lehendakaritzak hartuko dute parte. Bestetik, parte har dezakete, halaber, ezagutza teknikoengatik edo bestelakoengatik Kontseiluaren iritziz noizean behin edo maiz bertaratu behar duten bazkideek ere. Horiek guztiek, aurrekoek bezala, ahotsarekin baina botorik gabe hartuko dute parte.

Hiru. Hileko ohiko batzarretan gai hauek aztertu eta haiei buruzko erabakiak hartuko ditu Kontseilu Errektoreak:

- a) Aurreko saioaren akta onestea.
- b) Aurreko hilabeteko balantzearen eta idazpuru pasibo zein aktiboen garapenaren azterketa egitea, urteko eta epe luzeko kudeaketarako egindako aurreikuspenei begira.
- c) Ondare-ondasunak erostea eta besterentzea.
- d) Bazkideen inguruko edozein gai.
- e) Bere bazkideekin egindako eragiketa finantzarioak, helburu sozialetik eratorriak.
- f) Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Ekarpeneraren aplikazioa, Batzar Nagusiak ezarritako irizpideekin bat.

- g) Kooperatibaren politika orokorrak ezartzea.
- h) Kooperatibaren funtzionamendurako arau orokorrak ezartzea. i) Indarrean dagoen legeriak eta Estatutu hauek ematen dizkieten gai guztiak.

Lau. Kontseilua balio osoz eratu geratuko da bilerara kide hautatuen erdiak gehi bat joaten badira. Norberak joan beharko du eta ezingo da, beraz, inor ordezkatu, eta erabakiak bildutako Kontseilarien gehiengo soilez hartuko dira, boto zuriak eta abstentzioak kontatu gabe ondore horietarako. Hala ere, aurreko paragrafoaren arabera, emandako botoen bi heren beharko dira erabaki hauek hartzeko:

- a) Jarduera-zentro nagusietako bat edo bere parte handi bat itxi edo lekuz aldatzeko.
- b) Kooperatibaren jarduera nabarmen murriztu, handitu edo aldatzeko.
- c) Kooperatibaren antolamenduan garrantzizko aldaketak egiteko.
- d) Beste erakundeekin –kooperatibekin nahiz bestelakoekin– kooperatibarentzat iraunkor eta balioetsuak diren lankidetzako harreman-loturak ezarri edo desegiteko.

Berdinketak Lehendakartzaren botoak ebatziko ditu.

Batzar Nagusiaren gai-zerrendan sartu behar diren gaiak erabakitzeko, aski izango da Kontseiluko kideen herenaren aldeko botoa.

Bost. Kontseilu Errektoreko kideei beren funtzioak eragiten dizkien gastuak ordainduko zaizkie.

Sei. Behar bezala baimendutako Kontseilu Errektorearen Akta Liburua beteko da, eta bertan, eztabaiden laburpena eta erabakien testua jasotzeaz gain, bozketen emaitza ere agertuko da.

Zazpi. Geografikoki urrun dauden Kontseilu Errektoreko kideek parte hartu ahal izango dute eta erabakiak balio osoz hartzeko borondatea adierazi ahal izango dute, bidekonferentziaren edo irudiaren eta soinuaren arteko komunikazioa eta ikusizko, entzumenezko eta ahozko elkarrekintza ahalbidetzen duen antzeko sistema baten bidez. Kontseilu Errektoreko kideren batek organo horren bileran parte hartzen badu eta adierazi berri den moduan bere borondatea adierazten badu, idazkariak aktan jasoko ditu bere nortasuna eta horretarako erabilitako bidea, akordioak hartzeko balio duen gainerako baldintzekin batera.

## **58. artikulua. Kontseilu Errektorearen batzordeak.**

Bat. Kontseilu Errektoreak Auditoria eta Betetze Batzorde bat izendatuko du bere barnean. Batzorde hori bost kontseilariz egongo da osatua, eta horietatik hiruk bazkide kontsumitzaileak ordezkatzeko dituzte.

Batzordeko Lehendakaria kontseilari kontsumitzaileen artetik aukeraturiko da, lau urtean behin aldatu beharko da, eta berriz hautatua izateko eskubidea izango du.

Auditoria eta Betetze Batzordeak eskumen hauek izango ditu gutxienez, arauak ezartzen dituztenei kalterik egin gabe:

- a) Kontseilu Errektoreari kanpoko kontu-auditoreen izendapena, luzapena edo kargutik kentzea proposatzea, Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko.
- b) Barne-auditoriako funtzioaren independentzia eta eraginkortasuna zaintzea.

- c) Sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasuna, barne-auditoria, dagokionean, eta arriskuak kudeatzeko sistemak gainbegiratzea, bai eta kontu-auditoreekin edo auditoria-sozietateekin auditoriaren garapenean detektatutako barne-kontrolako ahultasun garrantzitsuak eztabaidatzea ere.
- d) Informazio finantzarioa lantzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.
- e) Kanpo-auditoreekin harremanetan egotea, haien independentzia arriskuan jar dezaketen arazoei eta kontu-auditoriaren garapen-prozesuarekin zerikusirik duen beste edozein gairi nahiz kontu-auditoriako legerian eta auditoriako arau teknikoetan aurrez ikusitako beste jakinarazpenei buruzko informazioa hartzeko.
- f) Kooperatibako gobernu korporatiboaren sistema gainbegiratzea, eta bereziki gobernu korporatiboaren politikak eta betetzea eta barneko jokabide-kodeak.
- g) Batzar Nagusian bazkideek beren eskumeneko gaitan, kasua denean, planteatzen dituzten arazoen berri ematea.

Auditoria Batzordea egokitzen jotzen den bezainbeste bilduko da Lehendakariak eskatuta, berak erabakita edo kideetako edozeinek eskatuz gero. Norberak joan beharko du bileretara, eta ezingo da, beraz, inor ordezkatu. Batzordea balio osoz eratu geratuko da bilerara kideen erdiak gehi bat joaten badira. Batzordeko kide bakoitzak boto bat izango du, eta akordioak emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira. Gainerakoan, Kontseilu Errektorarako ezarritako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira analogiaz.

Bi. Kontseilu Errektoreak Izendapenen eta Ordainsarien Batzorde bat eratuko du, eraketa-akordioan bertan zehazten diren funtzioekin.

Izendapenen eta Ordainsarien Batzordea Kontseilu Errektoreak izendatutako hiru kide ez-exekutibok osatuko dute, gutxienez, eta gehienez ere zazpi kide ez-exekutibok. Gehienek bazkide kontsumitzaileak izan beharko dute. Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeko lehendakaria Kontseilu Errektoreak izendatuko du kontseilari kontsumitzaileen artean.

Hiru. Aurreko apartatueta aurreikusitakoari kalterik egin gabe, Kontseilu Errektoreak kide anitzeko beste organo batzuk eratzea erabaki ahal izango du, eta kasu bakoitzean erabakitzen dituen ahalmenak eskuordetzan eman ahal izango ditu. Eraketa-akordioan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko ditu organo bakoitzaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu-arabidea. Organo horiek beren bileretara gonbidatu ahal izango dituzte Zuzendaritza Kontseiluko kideak edo Kontseilu Errektoreak edo organoak berak egokitzen jotzen dituen Kooperatibako beste kargu teknikoak.

Kontseilu Errektoreak erabakiko du haren osaera, eskumenak eta funtzionamendu-arabidea, eta organo horietarako araudi espezifiko bat ere onetsi ahal izango du. Egoki denean, analogiaz aplikatuko dira Kontseilu Errektorearen Araudian jasotako arauak.

Batzorde horien Lehendakariaren bidez, Kontseilu Errektoreak Batzordeek egindako lanari buruzko informazioa jasoko du bilera bakoitzean.

Lau. Geografikoki urrun dauden Kontseilu Errektoreko batzordeetako kideek parte hartu ahal izango dute eta erabakiak balio osoz hartzeko borondatea adierazi ahal izango dute, bideokonferentziaren edo irudiaren eta soinuaren arteko komunikazioa eta ikusizko, entzumenezko eta ahozko elkarrekintza ahalbidetzen duen antzeko sistema baten bidez. Batzordeetako kideren batek organo horren bileran parte hartzen badu eta adierazi

berri den moduan bere borondatea adierazten badu, idazkariak aktan jasoko ditu bere nortasuna eta horretarako erabilitako bidea, akordioak hartzeko balio duen gainerako baldintzekin batera.

### **59. artikulua. Kontseilu Soziala.**

Lan-bazkideekin –lan-bazkide diren heinean– zerikusirik duten gaietan kudeaketa egokia eramaten laguntzeko, batzorde berezi bat (Kontseilu Soziala izenekoa) eratzen da. Lan-bazkideek osatutako organo bat da, bazkideekin –langileak diren heinean– zerikusia duten arazoez ulertzen duena, Kooperatibaren helburu sozialarekin erlazionatutako gainerako arazoetan dituen aholkularitza eta informazioko eginkizunen eragozpenik gabe.

Bat. Organo horrek bete beharreko eginkizunen artean honako hauek daude:

- a) Lan-bazkideen Prestamen Batzarretan buru izatea, Kontseilu Errektoreak ahalordetuta eta kasu bakoitzean berretsita.
- b) Administrazio-organoa informatu, aholku eman eta kontsultei erantzutea lan-harremanei dagokien guztian; gai horiei buruz nahitaezko txostena egin beharko du jarraian.
- c) Lan-bazkideen zehapen-errekurtsoak ezagutzea eta horiei buruz lehen instantzian txostena egitea, Kontseilu Errektoreari hutsegite oso larrietan bere erabakiaren berri emanez, eta garrantzi txikiagokoetan zuzenean berak ebatziz, baldin eta Kontseilu Errektoreak ez badu aurkako erabakirik hartzen.

Bi. Kontseilu Soziala hamasei kide hautetsik osatuko dute gehienez, eta bere kopurua ezingo da inoiz hamabi baino gutxiagokoa izan. Kontseilu Errektoreak, Kontseilu Sozialak proposatuta, kasu bakoitzean zehaztuko ditu kopurua, eskualde-barrutiak eta horietako bakoitzaren ordezkarien proportzioa, honako irizpide hauen arabera:

- a) Eredu horietan dauden lan-bazkideen dentsitatea.
- b) Eredu bateko zentron arteko sakabanaketa geografikoa.

Gainera, hautatuak Kontseilu Sozialean, Kontseilu Errektorean eta Zuzendaritza Sozialean edo lan-bazkideak kudeatzeko ardura duen Zuzendaritzan egongo dira, ahotsarekin baina botorik gabe.

Hiru. Agintaldiaren iraupena lau urtekoa izango da. Berritzea erdika egingo da bi urtetik behin. Lehen berritzean, kargua utzi behar duten kideak zozketa bidez izendatuko dira.

Lau. Kontseilu Sozialeko kideak uzteko kausa izango dira, agintaldia betetzeaz gain, honako hauek:

- a) Lan-bazkide izaera galtzea.
- b) Bera hautatu zuen lurralde edo eremuaz bestelako batera aldatzea, lurralde hartatik bera bazen Kontseilu Sozialeko ordezkariak bakarra.
- c) Kausa larriagatik dimisioa, Kontseilu Sozialak onartuta.
- d) Bere karguari dagozkion betebeharrak ez betetzea, Kontseilu Errektorearen iritziz, eta Kontseilu Sozialak horretarako egindako espedientearen ondoren.

Bost. Behin betiko postu hutsak sortzen direnean, dagozkien ordezkoez beteko dituzte horiek, ordezkatuari geratuko litzaiokeen agintaldirako bakarrik.

Sei. Kontseilu Sozialak Lehendakari bat, Lehendakariordetza bat eta Idazkaritza bat hautatuko ditu bere kideen artean.

Zazpi. Funtzionamendua:

- a) Kontseilu Sozialak hilean behin egingo du, gutxienez, ohiko bilera. Baita Lehendakariak egoki irizten diren guztietan edo kideen heren batek, gutxienez, eskatzen duenean.
- b) Deialdiak Idazkaritzak egingo ditu, eta, gai-zerrendarekin batera, bileraren data eta ordua adieraziko ditu. Bileretara, Kontseilariak gain, une bakoitzean egokitzat jotzen diren pertsonak deitu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe.
- c) Kontseilu Soziala balio osoz eraturik geratuko da bilerara kideen erdiak gehi bat joaten badira. Norberak joan beharko du eta ezingo da, beraz, inor ordezkatu, eta erabakiak bildutakoan gehiengo soiluz hartuko dira. Lehendakariak zuzenduko ditu bilerak, eta bere botoak erabakiko du berdinketetan.
- d) Idazkaritzak bilera bakoitzaren akta egingo du. Aktak hurrengo bileran onetsiko dira, erabakiak hartzen diren une beretik bete beharrekoak izateko eragozpenik gabe.

## **60. artikulua. Kontseilu Sozialeko Batzorde Delegatuak.**

Bat. Kontseilu Sozialak Batzorde Delegatuen aholkularitza jasoko du, helburuak errazago lortu ahal izateko.

Bi. Kontseilu Sozialak definitutako mugape bakoitzean Kontseilu Sozialaren Batzorde Delegatu bat osatuko da, lan-bazkideen ordezkari gisa hautatua, eta Kontseilu Sozialari eta zentroko lan-bazkideei aholkuak eta informazioa emango die.

Hiru. Kontseilu Sozialaren laguntzaile gisa jokatzeko duten organo hauen osatura, eskumenak eta erantzukizunak araudietan definituko dira.

## **61. artikulua. Kontseilu Kontsumerista.**

Kontseilu Kontsumerista Kontseilu Errektorearen kontsulta- eta aholkularitza-organoa da, kontsumitzaileari erreferentzia egiten dioten alderdietan. Kontseilu Errektoreak gaiaren inguruan ezarritako arau guztien arabera proposatzen dizkion funtzio guztiak hartuko ditu bere gain. Honako ahalmen hauek ditu:

- a) Kontseilu Errektoreak ezarritako irizpideen arabera, eta Batzarretik datozen oinarriko jarraibideen barruan, udalerririk bakoitzari dagokion Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Ekarpenaren banaketa eta aplikazioa.
- b) Bazkide kontsumitzaileen komunitatearen barruan Kooperatibako Kontseilu Errektoreko kide izateko hautagaitzak proposatzea, Araudian ezarritako prozeduraren arabera.
- c) Bazkide kontsumitzaileen zehapen-errekurtsoak ezagutzea eta horiei buruz lehen instantzian txostena egitea, Kontseilu Errektoreari erabakiaren berri emanez.
- d) Esleitzen zaizkion gainerako aholkularitza eta informazioko eginkizunak. Kooperatibako Barne Araudiak arautuko ditu kontseilu horren osakerari eta antolaketari buruzko auziak.

## **62. artikulua. Batzorde Kontsumerista Lokala.**

Bazkide kontsumitzailearen eta, oro har, Kooperatiba dagoen udalerrietako kontsumitzaileen interesen defentsa-arazo bati erantzunez, Batzorde Kontsumerista Lokala izeneko batzorde berezi bat eratu da, haren osaera eta funtzionamendua Kooperatibako Barne Araudian zehaztuz. Kontseilu Errektoreak Batzorde horren esku utz dezake lanen exekuzioa, betiere indarrean dagoen araudiak zehazten dituen mugetan eta terminoetan.

## **63. artikulua. Zuzendaritza Nagusia izendatzea eta kargutik kentzea.**

Bat. Kontseilu Errektoreak izendatuko du Zuzendaritza Nagusia, kargu horri dagozkion eginkizunak betetzeko adina gaitasun, prestakuntza tekniko eta esperientzia duten pertsonen artean.

Bi. Kontseilu Errektoreari dagokio Zuzendaritza izendatzea, kontratatzea eta kargutik kentzea, eta Kontseiluaren botoen erdiak aski izango dira edozein unetan Zuzendaritza ezeztatzeke erabakia hartzeko.

## **64. artikulua. Zuzendaritza Nagusiaren betebeharrei buruz.**

Bat. Kooperatibaren Zuzendaritzak ez ditu Kontseilu Errektorearen eskumenak eta ahalmenak aldatzen ez murrizten, ezta haren kideek Kooperatibarekiko, bazkideekiko eta hirugarrenekiko dituzten erantzukizunak desagerrarazten ere.

Zuzendaritzari eman zaizkion ahalmenak enpresa-trafiko arruntaren ingurukoak dira soilik, eta ezingo ditu inoiz hartu ahalmen hauek:

- a) Kooperatiba-kudeaketarako jarduketa-jarraibide orokorrak zehaztea, Batzar Nagusiak ezarritako politika nagusia betez.
- b) Enpresa-kudeaketaren kontrol iraunkor eta zuzena.
- c) Batzar Nagusiari kontu ematea, emaitzen egozpenaren eta esleipenaren proposamena egitea, eta ekitaldi ekonomikoaren kudeaketaren Txostena azaltzea.
- d) Konkurtsoa eskatzea.

Bi. Kontseilu Errektoreak ezarritako jarduketa-jarraibide orokorretatik eta kontratutik eratorritako betebeharrak ditu Zuzendaritza Nagusiak.

Hiru hileru, gutxienez, Kooperatibaren egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko txostena aurkeztuko dio Kontseiluari.

Hiru. Ekitaldi soziala ixten denetik bi hilabetera, Zuzendaritza Nagusiak Kooperatibaren kudeaketari, Balantzeari eta Emaizten Kontuari buruzko txostena aurkeztu behar dio Kontseilu Errektoreari, informazio gisa eta Batzarrean azter dezaten.

Lau. Zuzendaritza Nagusiak Lehendakaritzari jakinarazi beharko dio, lehenbailehen, Kontseilu Errektorea deitzeko moduko edozein arazo badago, edota, garrantzitsua izateagatik, Kontseiluak jakin beharrekoa bada.

## **65. artikulua. Zuzendaritza Kontseilua.**

Zuzendaritza Nagusiaren aholkulari gisa jokatu du Zuzendaritza Kontseiluak, eta bere osaera eta funtzionamendua Kooperatibaren Barne Araudiaren arabera arautuko dira.

## **66. artikulua. Errektoreen eta Zuzendaritzarenezgaitasunak eta bateraezintasunak.**

Bat. Hauek ezingo dira izan Kontseilu Errektoreko edo Zuzendaritzako kideak:

- a) Kooperatibaren berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioen ardura duten funtzionarioak edo administrazio publikoko langileak; epaileak; magistratuak; eta lege-bateraezintasunen bat duten gainerakoak.
- b) Norberaren kabuz edo beste pertsona batentzat jarduera lehiakideak edo Kooperatibaren osagarri direnak burutzen dituztenak, edo Kooperatibaren aurkako interesak edozein modutan dituztenak, baldin eta ez badie Batzar Nagusiak berariaz horretarako baimenik eman.
- c) Emantzipatu gabeko adingabeak.
- d) Konkurtso Legearen arabera desgaitutakoak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian zehaztutako desgaitutako epealdia amaitu ez den bitartean; judizialki ezgaitutakoak; askatasunaren, ondarearen, ordena sozioekonomikoaren, segurtasun kolektiboaren edo Justizia Administrazioaren aurkako delituengatik kondenatutakoak; edozein faltsutze-motagatik kondenatutakoak; eta beren kargua dela-eta merkataritzan aritu ezin direnak.

Bi. Bateraezintasunak dira Kontseilu Errektoreko, Zuzendaritza Kontseiluko, Jagoletza Batzordeko eta Errekurtso Batzordeko kideen karguak, bai eta horien arteko ahaidetasun-harremana ere, odol-ahaidetasunaren edo ezkontza-ahaidetasunaren bigarren maila arte.

Hiru. Bietako bat, Kontseilu Errektoreko edo Zuzendaritzako kargua, ezin da aldi berean hiru Sozietate Kooperatibotan baino gehiagotan eduki.

Lau. Artikulu honetan aipatzen diren debekuetako batean erortzen den Kontseilaria edo Zuzendaritza bere kargutik berehala kenduko dute edozein bazkidek eskatuta, jokabide desleialagatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe. Karguen arteko bateraezintasun-egoeran dagoenak karguetako bat aukeratu beharko du, bigarren kargurako hautatzen dutenetik bost eguneko epean, eta, egiten ez badu, bigarren izendapena baliorik gabe geldituko da.

## **67. artikulua. Kooperatibarekiko interes-gatazka.**

Bat. Batzar Nagusiaren baimena beharko da aldez aurretik, Kooperatibak Kontseilu Errektoreko edo Jagoletza Batzordeko edozein kiderekin edo Zuzendaritzarekin edo bertako kideren baten bigarren gradurainoko odol- edo ezkontza-ahaide batekin behartzeko beharra izango balu. Baimen hori beharrezkoa izango da, halaber, Kooperatibaren konturako eta lehenago aipatutako pertsonen aldeko eragiketa hauek egiteko: zorrak bereganatzea eta fidantzak, bermeak, abalak, maileguak eta antzeko helburua dutenak ematea.

Baimen hori, berriz, ez da beharrezkoa izango bazkide edo langile gisa Kooperatibarekin harremanak edukitzeko, langileak ordezkatzen dituen Kontseilu Errektoreko Batzordekidea izanez gero.

Kooperatibarekiko interes-gatazkan dauden pertsonak ezin dute Batzar Nagusiaren bozketan parte hartu.

Bi. Batzarraren baimenik gabe, aurreko apartatuan aipatzen diren ekintza, kontratu eta eragiketak deusezak izango dira eskubide osoz, baina ez die eragingo beste batzuek fede onez lortutako eskubideei. Kontseilariaren edo Zuzendaritzaren mugiarazte automatikoa ekarriko du, eta Kooperatibari eragindako kalte-galerei pertsonalki erantzun beharko diete.

## **68. artikulua. Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Nagusiko kideen betebeharrak eta erantzukizuna.**

Bat. Kontseilu Errektoreko kideek beren kargua beteko dute, eta legeek eta estatutu sozialek ezarritako betebeharrak beteko dituzte enpresaburu fin baten arretaz, karguaren izaera eta bakoitzari esleitutako funtzioak kontuan hartuta; eta kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza zuzenerako beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte.

Era berean, ordezkari leial baten leialtasunez beteko dute beren kargua, eta fede onez jardungo dute kooperatibaren interes onenari dagokionez, eta beren ahalmenak ez dute baliatuko emandako helburuetarako ez diren beste batzuetarako.

Isilean gorde behar dituzte datu konfidentzialak, baita beren eginkizunak amaitu eta gero ere, legeak horretarako aukera ematen edo eskatzen duen kasuetan izan ezik.

Enpresa-diskrezionalitateari lotutako erabaki estrategikoen eta negozio-erabakien eremuan, enpresaburu fin baten arretaren estandarra bete dela ulertuko da Kontseilu Errektoreko kideak fede onez jokatu badu, erabakiaren xede den gaian interes pertsonalik gabe, behar adinako informazioarekin eta funtzionamendu egoki baten esparruan.

Ez dira sartuko enpresaren diskrezionalitatearen eremuan kooperatibarekiko interes-gatazka dakarten edo ekar dezaketen erabakiak.

Bi. Kooperatibaren aurrean erantzukizun solidarioa izango dute, doloz edo erruz, legearen edo estatutu sozialen aurkako egintzengatik, edo karguari dagozkion betebeharrak bete gabe egindakoengatik. Kontseilariak ez dute erantzukizunik izango baldin eta frogatzen badute, onarpenean edo exekuzioan parte hartu gabe, ez zutela ezagutzen, edo, ezagutuz gero, kaltea saihesteko ahal zuten guztia egin zutela edo, gutxienez, haren aurka egin zutela.

Hiru. Egintza edo akordio kaltegarria batzar orokorrak onartu, baimendu edo berretsi izanak ez du erantzukizunetik salbuetsiko.

Lau. Zuzendaritza, kudeatzaile fin eta ordezkari zintzo modura arituko dena, Kooperatibaren interesei eragin diezaikeen edozein kalteren erantzule izango da Kooperatibaren aurrean, doloz, zabarkeriaz eta ahalmen-gehiegikeriaz jokatzeari edo Kontseilu Errektorearen aginduak eta jarraibideak behar bezala ez betetzeagatik. Zuzendaritza, berebat, erantzule izango da bazkideen aurrean eta hirugarrenen aurrean, haien interesei kalte egin dieten egintzengatik.

Hurrengo artikuluan jasotakoa Zuzendaritzaren kontra har daitezkeen erantzukizun-akzioetan aplikatuko da, eta Bat apartatuan ezarritakoa, berriz, Kontseilu Errektorearen erabakiz ere gauzatuko da.

## **69. artikulua. Erantzukizun-akzioak.**

Bat. Kontseilu Errektoreko kideen kontrako erantzukizun-akzioa Sozietateak gauzatu dezake, Batzar Nagusiak, balio osoz eta botoen erdiekin baino gehiagorekin, erabaki eta gero.

Batzar Nagusiak edozein unetan erabaki dezake akzioaren egikaritzari amore ematea edo bertan behera uztea, bildutako en eta ordezkatu en botoen bi hereneko gehiengoarekin.

Gai-zerrendan sartuta ez badago, bertaraturako eta ordezkaturako botoen bi herenek aldeko botoa eman beharko dute, boto zuriak eta balio gabek alde batera utzita.

Kontseilu Errektoreko kideen kontrako erantzukizun-akzioa egitea erabaki zuen Batzarretik hiru hilabete igarotakoan Sozietateak ez badu akzio hori abiarazi, edozein bazkidek egikaritu dezake, Sozietatearen izenean eta kontura.

Era berean, botoen % 20 gutxienez ordezkaten duten delegatuek ere erantzukizun-akzioa abiarazi ahal izango dute interes soziala defendatzeko, Kontseilu Errektoreak horretarako eskaturako Batzar Nagusirako deialdia egiten ez badu.

Batzar Nagusiak erantzukizun-akzioak egikaritzeko erabakia hartzen badu, Kontseilu Errektoreko kideak bere kargutik automatikoki kenduko dira, eta, Batzarren saio berean, gai-zerrendan ez agertu arren, Kontseilu Errektoreko kide berriak hautatuko dira. Kontseilu Errektoreak behin-behineko izaera izango du, eta izendapena egiten denetik hamabost egunera beste Batzar Nagusi batera deituko du, Kontseilu Errektoreko behin betiko kideak hautatzeko.

Erantzukizun-akzio hori abiaraz dezakete, halaber, Sozietateko hartzekodunek, ondare soziala berregiteko asmoz, erantzukizuna eragin zuten gertakariak gertatu zirenetik sei hilabete igarotakoan eta Sozietateak eta bazkideek akzio hori abiarazi ez badute.

Kontseilu Errektoreko kideen aurkako erantzukizun-akzioak bi urteren buruan preskribaturako du erantzukizun hori eragin duten egintzak gertatzen direnetik edo jakiten denetik kontaktzen hasita.

Bi. Aurreko apartatuan ezarritakoa alde batera utzita, edozein bazkidek edo hirugarren batek gauzatu ahal izango ditu Kontseilu Errektoreko kideen egintzengatik bere ondarean zuzenean eragindako kalteagatik legezkiokoen kalte-ordainen akzioak. Dagokion akzioa egikaritzeko epea aurreko apartatuan aurreikusitakoa izango da, demandatzailea bazkidea bada, eta Kode Zibilean ezarritakoa, berriz, bazkide ez den hirugarrena bada.

## **70. artikulua. Kontseilu Errektorearen erabakien aurkaratzea.**

Bat. Artikulu honetan ezarritako arauen arabera eta epeetan aurkaratu ahal izango dira Batzar Nagusiak hartutako erabakiak, baldin eta Legearen aurkakoak badira, Estatutuen aurkakoak badira, edo Kooperatibaren interesak kaltezen badituzte, bazkide baten edo gehiagoren mesedetan.

Zuzendaritza Nagusiak adostutako ekintzak eta erabakiak Kontseilu Errektorearen erabakitzat hartuko dira, artikulu honetan jasotzen den aurkaratze-aukerari dagokionez.

Bi. Erabaki sozial baten aurkaratze-akzioa baiesten duen epai batek bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez du eraginik izango aurkaratutako erabakiaren ondorioz hirugarrenek fede onez eskuratutako eskubideetan.

Hiru. Kontseilu Errektoreko kideek, Jagoletza Batzordeak eta edozein bazkidek dute erabakiak aurkaratzeko akzioak egiteko legitimazioa.

Lau. Erabaki deusezak edo deuseztagarriak aurkaratzeko akzioak erabakiaren berri izaten dutenetik kontatzen hasi eta 60 eguneko epean iraugiko dira, baldin eta hartu zenetik ez bada urtebete igaro.

Bost. Aurkaratzeko akzioak egikarituko dira Batzar Nagusiaren erabaki sozialak aurkaratzeko aurrez ikusitako prozeduraren arabera.

## **71. artikulua. Jagoletza Batzordea.**

Bat. Batzar Nagusiak, bere bazkideen artetik eta botazio sekretu bidez, Jagoletza Batzordeko hiru kide izendatuko ditu; bi bazkide kontsumitzaileak izango dira, eta hirugarrena lan-bazkidea; eta izendatuko ditu horien ordezkioak ere. Bi urteko epealdian jardungo dute, berriro hautatuak izateko aukerarekin.

Jagoletza Batzordeko kidea izateak ez du emango inolako ordainsarirako eskubiderik, baina ordaindu egingo dira horren ondorioz sortutako gastuak.

Bi. Jagoletza Batzordeak, Kooperatibako organoa denez, Legeak eta Estatutu hauek espresuki gomendatzen dizkioten eginkizunak ditu, izaera fiskalizatzailekoak den-denak. Horien artean honako hauek daude:

- Hauteskunde-prozesuen kontrola eta jarraipena –halakoen legezko formalitateak betetzen diren ala ez begiratuko du bozketetan–, eta arlo honetako liskarrak ebaztea eta kontaketa egitea, beronen akta jaso eta berehala argitaratzeko.
- Batzar Nagusirako emandako akreditazio eta ordezkaritzen baliotasunari buruz erabakitzea.
- Kontseilu Errektoreari Ohiko Batzar Nagusiaren deialdia egiteko eskatzea, ekitaldia itxi denetik sei hilabete igarotakoan deialdi hori oraindik egin ez bada.
- Ezohiko Batzar Nagusia egiteko eskatzea.
- Batzar Nagusiko gai-zerrendarako gaiak proposatzea.
- Batzar Nagusian aurkaratzeko akzioak egikaritzea, legearen edo Estatutu hauen kontrakoak direnean.
- Batzar Nagusian bazkideek beren eskumeneko gaietan planteatzen dituzten arazoan berri ematea.
- Aplikatzekoa den legeriatik eratorritako gainerakoak.

Hiru. Organoan berdinketa gertatuz gero, Jagoletza Batzordeko kide adinekoenak kalitateko botoa izango du.

Lau. Euskadiko Kooperatiben Legearen 51. artikuluan erantzukizunari buruz ezarritakoa ere aplikatuko zaio Jagoletza Batzordeari. Jagoletza Batzordeari aplikatuko zaio, halaber, Administrazioaileentzat bateraezintasunei, aldibereko kargu-betetzeari eta debekuari buruz ezarritakoa.

## **72. artikulua. Kanpoko Auditoria.**

Bat. Batzar Nagusiak izendatu beharreko Kooperatibaz kanpoko pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu beharko dituzte urteko kontuak. Ez badira izendatzen, edo izendatutakoek huts egiten badute, Euskadiko Kooperatiben Legearen 76.2. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatuko da.

Bi. Ezingo ditu inola ere kontuak egiaztatu azken lau urteetan Kooperatibaren barruan administrazio-lanak edo aholkularitzazko edo konfiantzazko funtzioak betetzen dituen edo bete izan dituen pertsonak. Ezingo du egin, ezta ere, denboraldi horretan bertan pertsonaleko parte egiten duenak edo egin izan duenak, ezta Euskadiko Kooperatiben Legeak Jagoletza Batzordearentzat ezarritako debekuren batzuetan eroritako pertsonak ere.

Hiru. Haien edukiari, aurkezteko epeari eta alde zuzeneko Auditoriako Txostenik gabe egindako urteko kontuen aurkaratzeari dagokienez, Euskadiko Kooperatiben Legearen 76. artikuluan jasotzen dena aplikatuko da.

## **73. artikulua. Errekurtso Batzordea.**

Bat. Indarrean dagoen legerian ezarritakoaren babesean, Errekurtso Batzordea osatzen da, Kontseilu Errektoreak hartutako erabakien aurka bazkideek aurkeztutako errekurtsoak izapidetzeko eta ebazteko, baita Estatutuaren aurrez ikusitako eta Legeak ezarritako errekurtso guztiak ere.

Bi. Errekurtso Batzordea bost kidek osatzen dute, hiru langilek eta bi kontsumitzailek; Batzar Nagusiak bozketa sekretu bidez hautatuko ditu, eta ahotsarekin eta botoarekin arituko dira.

Kontseilu Errektorearen Lehendakariak hartuko du parte bileretan. Era berean, eragindako bazkide-motaren arabera, Kontseilu Sozialeko Lehendakariak eta Zuzendaritza Soziala edo lan-bazkideak eta/edo bazkide kontsumitzaileak kudeatzeko ardura duen Zuzendaritza deituko dira. Guztiak ahotsarekin baina botorik gabe arituko dira. Errekurtso Batzordea bildu aurretik, errekurtsoa aurkeztu duen bazkideak eskubidea izango du idazkia Batzorde horretako hautetsiei aurkezteko, egoki deritzon ahozko txostena gehituz.

Batzordeak Kooperatibako beste bazkide batzuen laguntza eska dezake, eta horretarako Batzordearen eztabaidetan parte hartzeko ezohiko deialdia jaso beharko dute, haiek eduki dezaketenez ezagutza erabiltzeko.

Hiru. Errekurtso Batzordeak Lehendakariak bat eta Idazkaritza bat izendatuko ditu bere kideen artean. Organo horretako karguen eginkizunak Kontseilu Errektoreko karguen eginkizunen antzekoak dira.

Lau. Errekurtso Batzordeak bere kideen erdiak gehi bat elkartzeko direnean eztabaidatuko du balio osoz, eta Kontseilu Sozialaren edo Kontseilu Kontsumistaren txostena erabili beharko du, lanari buruzko edo kontsumitzaileei buruzko auzia bada.

Batzordearen erabakiak bildutako kideen gehiengo soilez hartuko dira, eta ezin izango da botoa delegatu. Berdinketak Lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Ezingo dute errekurtsoen izapidetzean eta ebazpenean parte hartu eragindako bazkidearekiko bigarren gradu arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna dutenek, edo espedientepekoarekin mendekotasuna adierazten duen lotura, adiskidetasun mina edo etsaitasun nabarmena duten Batzordeko kideek.

Bost. Batzordearen bilera-aktak erabakien testua jasoko du –erabaki horiek Errekurtso Batzordearen Liburuan transkribatuko dira–, eta Idazkaritzak eta Zuzendaritzak sinatuko dute akta.

Errekurtso Batzordearen erabakiak berehala egikaritzekoak izango dira, borondate sozialaren adierazpen gisa behin betikoak izango dira, eta Batzar Nagusiak hartu izan balitu bezala aurkaratu ahal izango dira, Estatutu hauen 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Sei. Errekurtso Batzordearen kidea izatea bateraezina izango da Kooperatiban hautatzen den edozein kargurekin, edo Kooperatibarekin berarekin lan-harremana izatearekin ere.

Zazpi. Errekurtso Batzordeko kideen agintaldia bi urtekoa izango da, eta berriro hautatu ahal izango dira. Berritzea hiruko (bi langile eta kontsumitzaile bat) eta biko (langile bat eta kontsumitzaile bat) txandetan egingo da, eta horrela etengabe.

#### **74. artikulua. Kontseilu Errektorea, Jagoletza Batzordea eta Errekurtso Batzordea berritzeko prozedura.**

Bat. Hurrengo puntuan ezarritakoa alde batera utzita, Kontseilu Errektoreko, Jagoletza Batzordeko eta Errekurtso Batzordeko kide hautatuak izateko hautagai gisa aurkeztu ahal izango dira pertsonalki hala erabakitzen duten bazkide guztiak, Kontseilu Errektorearen aurrean hala jasoaraziz.

Bi. Bi bazkide-komunitateetako oinarrizko kontsulta-organoak –hau da, Batzorde Kontsumeristak eta Kontseilu Sozialeko Batzorde Delegatuak– izango dira hautagaitzak proposatzeko bideak. Nolanahi ere, bazkide-komunitate bakoitzak bere kideen artean dagozkion hautagaitzak proposatu eta babesteko ahalmena soilik izango du.

Hiru. Lan-bazkideek, bazkide kontsumitzaileen izaera izan arren, lan-bazkide izateko baino ezin izango dute gauzatu ondore horietarako.

Lau. Batzorde Kontsumerista bakoitzak edo Batzorde Delegatu bakoitzak 2 hautagaitza aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Aurkezpena Kontseilu Errektorearen aurrean egingo da Kontseilu Kontsumeristaren edo Kontseilu Sozialaren bitartez, dagokionaren arabera.

Bost. Hautagai-zerrenda aurkezteko epea, gehienez ere, zazpi egun naturalekoa izango da, Batzar Nagusiaren deialdia argitaratzen denetik; eta baliogabetzat joko dira data horretatik aurrera egindako aurkezpenak.

Sei. Kontseilu Errektoreak hasierako hautagai-zerrenda prestatuko du, eta hauek osatuko dute:

- a) Batzorde Kontsumeristek eta Batzorde Delegatuek aurkeztutakoak, artikuluko honetako Bi eta Lau apartatuen xedatutakoaren arabera.

- b) Pertsonalki aurkeztutakoak, baldin eta artikulua honetako Bat apartatuaren baldintzak betetzen badituzte.

Zazpi. Hautagai-zerrenden artean bozketa bana egingo da, batetik, Kontseilu Kontsumeristaren aldetik hautagai-zerrenda bazkide kontsumitzaileei baldin badagokie, eta, bestetik, Kontseilu Sozialeko Batzorde Delegatuen Batzarraren aldetik lan-bazkideen hautagaiei badagokie, bazkide-komunitate bakoitzaren behin betiko hautagai-zerrendaren ordena erabakitzearen. Aukeraketa hori egiteko, bertarutzen den bakoitzak talde sozial bakoitzeko bazkideak ordezkatzeko Kontseilu Errektorean, Jagoletza Batzordean eta Errekurtsio Batzordean dauden postuak adina bazkideri eman ahal izango dio botoa. Berdinketa gertatuz gero, antzintasun handieneko bazkidearen alde ebatziko da.

Zortzi. Kontseilu Errektoreak aldarrikatuko ditu hautagaizak.

Bederatzi. Batzar Nagusiko Delegatuek aldarrikatutako hautagai-zerrendei soilik eman ahal izango diote botoa.

Hamar. Batzar Nagusiko Delegatuek, gehienez ere, Kontseilu Errektorean, Jagoletza Batzordean eta Errekurtsio Batzordean bazkide-komunitate bietako bakoitzaren ordezkari izan behar diren postuak beste hautagaiei emango diete botoa.

Hamaika. Delegatuen Batzar Nagusiko bilkuran bazkide-erkidego bakoitzaren ordezkari gisa boto-kopururik handiena jasotzen duten bazkideak izango dira Kontseilu Errektoreko, Errekurtsio Batzordeko eta Jagoletza Batzordeko kide aldarrikatuak. Botazio-zerrendan hurrena datozenak, kopuru berdinean, hauteskunde-ekitaldi berean hautatuen ordezkari bezala ordenatuak izango dira ordeztuari geratzen zaion agintaldirako, bakoitzak lortutako botoen kopuruaren arabera. Berdinketa gertatuz gero, antzintasun handieneko bazkidearen alde ebatziko da.

## **75. artikulua. Letradu aholkularia.**

Kontseilu Errektoreak pertsona bat izendatuko du Letradu aholkulari gisa, Euskadiko Kooperatiba Legearen 77. artikuluan ezarritako arauekin bat, eta aholkulari horrek, Zuzenbidez egokiak direla erabakitzen badu, Kooperatiban erregistratu behar diren eta Batzar Nagusian nahiz Kontseilu Errektorean hartutako erabakiak sinatuko ditu.

## **76. artikulua. Kooperatiba-elkarteekiko edo gainegiturako erakundeekiko harreman juridikoen oinarriko elementuak.**

Kooperatibaren eta bigarren edo beheagoko mailako kooperatiben arteko erlazio juridikoen, eta berebat aurreikuspen-mutualitatea eta bere elkarkide dituen edo etorkizunean balio osoz onartutako hitzarmen bitartez elkarkide izango dituen gainegiturako edo lankidetzako erakundearen arteko erlazio juridikoen oinarriko erregulazioa era honetan egingo da:

- a) Oro har, Kooperatibak erakunde horietan izango dituen eskubide eta betebeharren edukia eta horien egikaritzea eta betetzea haien Estatutu eta arauen arabera gobernatuko dira, alderdiek libreki hitzartutako itunen arabera eta aplikatzekoak diren legezko xedapenen arabera.
- b) Aipatutako erakundeei dagozkien organoetatik eratorritako arauak eta erabakiak, kideentzat edukia dutenean, Kooperatiban aplikatuko dira, barne-zuzenbidekoak balira bezala.

- c) Elkarre eta erakunde hauetan Kooperatibak dituen eskubide politikoak bere ordezkarien bitartez egikaritzeko dira, arau hauetan oinarrituz:
- Kontseilu Errektoreak izendatuko du ordezkaria, kasu bakoitzean berariaz edo baita arautze egonkor baten bidez ere, lankidetzaren erakundearen izaeraren eta emandako ordezkariaren arabera;
  - ordezkariaren izaerari kalterik egin gabe, Kooperatibaren ideiak defendatzea bere erantzukizun pertsonala izango da, inork agindu gabe, Batzar Nagusiak edo dagokion organoak halakorik erabakiko ez balu behintzat. Baina Kooperatibaren organoen irizpena helaraziko zaie lankidetzaren erakundeek hartu beharreko erabakietan Kooperatibaren eskumenak eragiten dienean.
- d) Aurreko apartatuetan ezarritako aplikazio-arauak eta garapena Kooperatibaren Barne Araudian edo araudi zehatz batean zehaztuko dira.

# V. Kapituluua.

## BAT-EGITEA ETA ZATIKETA, ERALDAKETA, DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA.

### **77. artikulua. Bat-egitea eta Zatiketa.**

Bat. Kooperatibak, Batzar Nagusiaren bidez, bat-egitea edota zatiketa adostu ahal izango du.

Bi. Kasu horietan, Euskadiko Kooperatiben Legearen 80. artikulutik 88. artikulura bitartean –biak barne– ezarritakoa aplikatuko da.

### **77 bis artikulua. Eraldaketa.**

Eraldaketari dagokionez, Euskadiko Kooperatiben Legearen 89. eta 90. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

### **78. artikulua. Desegiteko arrazoiak.**

Kooperatiba desegiteko arrazoiak dira:

- a) Batzarrak hala erabakitzea.
- b) Erabateko bat-egitea edo zatiketa. a) eta b) kasuak Batzar Nagusian bildutakoen eta ordezkatuena botoen bi herenekin erabaki behar dira.
- c) Kooperatiba eratzeko legez beharrezkoa den bazkide-kopurua jaistea, eta sei hilabetez horrela irautea.
- d) Kapital soziala murriztea, 35 Hiru artikuluan ezartzen den gutxienezko behera, eta sei hilabetean horrela mantentzea.
- e) Kooperatibaren likidazio-fasea irekitzea konkurtso-prozeduran.
- f) Legeak ezarritako beste edozein arrazoi.

a), b) eta e) apartatuetan aurrez ikusitakoak izan ezik, desegiteko beste edozein arrazoi ematen denean, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du, bi hilabeteko epean, desegiteko erabakia har dezan. Xede horrekin, edozein bazkidek galdatu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari Batzar Nagusia dei dezan, baldin eta, bere iritziz, aipatutako desegiteko arrazoiaren bat badago.

Kasu horretan, desegiteko erabakia –eskritura publikoan jaso beharko dena– Batzar Nagusiak hartu beharko du, balio osoz adierazitako botoen erdia baino gehiagorekin.

Batzar hori estatutuetan ezarritako epean biltzen ez bada, edo bildu arren erabaki hori ezingo balitz hartu edo desegitearen aurkako erabakia hartuko balitz, Kontseilu Errektoreak eskatu beharko du, eta edozein interesdunek eskatu ahal izango du, Kooperatibaren desegite judiziala. Nolanahi ere, alderdi interesdun izango dira, gutxienez, Sozietatearen boto sozial guztien hamarrenak.

Desegite-erabakia nahiz ebazpen judiziala Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, eta egoitza sozialaren eremuan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean argitaratu beharko da.

## **79. artikulua. Likidazioa.**

Bat. Bat egiteko eta zatitzeko kasuetan izan ezik, desegin den Kooperatibarako hiru bazkide likidatzaile izendatuko dira. Desegitea erabaki den Batzar Nagusian izendatu beharko dira, edota bestela Kontseilu Errektoreak atzerapenik gabe deitu behar duen Batzarrean. Izendapen hori bozketa sekretu bidez egingo da.

Kooperatibak izendapen hori egin ezin dezakeenean, edozein bazkidek eska dezake izendatzea.

Izendapen horiek bere funtzioak betetzeari utzi behar dion Kontseilu Errektoreko kideetara ere zabal daitezke.

Bi. Likidazio-aldian, Batzar Nagusiak berak izendatutako bazkide likidatzaileak errebokatu ditzake, eta berri batzuk izendatu.

Lehen Auzialdiko Epailleak bazkide likidatzaileek kargua utz dezaten erabaki dezake, arrazoi zuzen bidez, boto sozial guztien % 20, gutxienez, ordezkatzan dituen Delegatutalde batek eskatuta.

Hiru. Likidazio-aldian Batzar Nagusien –ohikoen zein ezohikoen– araubideari aplikatu dakizkiokkeen xedapenak hartuko dira kontuan. Batzar horiek likidatzaileek deituko dituzte, gidatuko dituzte eta bertan likidazioaren berri eta dagokion balantzearen berri emango dute, onets daitezzen.

Likidatzaileak kidegoan arituko dira, eta hartzen dituzten erabakiak akta-liburu batean jasoko dituzte. Likidatzaileek erabakiko dute norik beteko dituen Zuzendaritza- eta Idazkaritza-lanak.

Lau. Kooperatibak bere nortasun juridikoari eutsiko dio likidazio-aldian, baina “likidazioan” esaldia gehituko dio bere izenari.

Bost. Likidatzaileei konpentsazio-ordainsari bat ezarriko zaie betetzen dituzten funtzioengatik, eta funtzio horiek betetzeko dituzten gastuak, behintzat, abonatuak zaizkie.

Sei. Likidazio-aldiak behar beste iraungo du, baina ezingo du gainditu indarrean dagoen urteko ekitaldia bukatzeko gelditzen den aldia edo ekitaldi oso bat; hala ere, Batzar Nagusiak sei hilabeteko luzapenak eman ditzake likidatzaileen txostenetan oinarrituta, likidatze-eragiketak behar bezala egiteko beharrezkoa bada.

Zazpi. Likidazioan eta eginkizunen transmisioan esku hartzeari dagokionez, indarrean dagoen Euskadiko Kooperatiben Legearen 95. eta 97. artikuluei begiratuko zaie.

## **80. artikulua. Kaudimengabezia-egoera.**

Sozietatea kaudimengabezia-egoeran badago, likidatzaileek ordainketa-etendura edo porrot-egoera eskatu beharko dute hamar egunen buruan egoera nabarmen agertzen denetik, kasuan-kasuan.

Horri dagokionez, unean indarrean dagoen legeria aplikatuko da. Probidentzia judiziala Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da.

### **81. artikulua. Likidatzaileen eskumena eta Hartzeko Sozialaren esleipena.**

Bat. Aurreko artikuluan adierazitakoaz gainera, likidatzaileak eskudunak izango dira Euskadiko Kooperatiben Legearen 96. artikuluan beren egiteko gisa adierazitako alderdietako bakoitza egiteko.

Bi. Hartzeko Sozialaren banaketa eta esleipena egiteko, kontuan hartuko dira uneko kooperatiben legearen araudiak. Ildo horretatik, honela jokatuko da:

Hartzekodun Soziala esleitzerakoan, lehenik eta behin tituluetan edo aurrezki-kontuetan gauzatu ez den Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Ekarpenaren zenbateko osoa estaltzeko adina elementu bereiziko dira aktibotik.

Gainerako Hartzeko Soziala honela esleituko da:

- a) Zor sozialak kitatuko dira.
- b) Kapital sozialari egindako ekarpenen zenbatekoa, eguneratua hala badagokio, itzuliko zaie bazkideei; hasieran borondatezko ekarpenak eta gero nahitaezkoak itzuliko dira.
- c) Borondatezko erreserba-funts banagarrietan duten partaidetza ere itzuliko zaie bazkideei Estatutuen xedapenez edo Batzar Nagusiaren erabakiz, eta Estatutuetan edo erabaki horretan ezarritako arauen arabera banatuko dira gainera, eta halako xedapen edo erabakirik ezean, berriz, azken bost urteetako erretornu-banaketako irizpidearen arabera.
- d) Soberakina, halakorik balego –bai Nahitaezko Erreserba Funtsekoa eta bai Kooperatibaren hartzeko likidokoa–, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.

### **82. artikulua. Likidazioko azken balantzea.**

Arazo honi dagokionez, Euskadiko Kooperatiben Legearen 99. artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da.

### **83. artikulua. Amaitzea.**

Likidazio-aldia eta Kooperatibako Ondarearen banaketa bukatutakoan, eta likidazioaren Azken Balantzea eta eragiketak onetsi eta gero, likidatzaileek Kooperatiben Erregistroari eskatuko diote Kooperatibari dagozkion idazpenak ezeztatzea eta Sozietateari dagozkion liburuak eta dokumentuak bertan uztea.

### **84. artikulua. Konkurtsoa.**

Sozietate Kooperatiboei konkurtso-legeria aplikatuko zaie.

Konkurtsoa eskatutzat jotzeko probidentzia judiziala Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da.

## Xedapen gehigarria

Estatutu hauetako 76. artikuluan araututakoaz gainera, honako hau ezartzen da:

Eroski S.Coop. honako erakunde hauetako bazkide edo kide da:

- MONDRAGON CORPORACIÓN CORPORATIVA (“MONDRAGON”) Sozietate Zibilekoa, G-20407912 IFZ duena, Euskadiko Kooperatiben Erregistroko Kooperatiba Sozietateak eta bestelako enpresa-elkarteak inskribatzeko Liburuko 2012 folioko 1. idazpenean inskribatua.
- Lagun Aro, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundekoa, egoitza Arrasaten (Gipuzkoa) duena, Jose M<sup>a</sup> Arizmendiarieta pasealekua, 1 zk., eta urriaren 27ko 25/1983 Legean bere Garapen Araudian xedatutakoaren arabera eraturia; bere Estatutuak Eusko Jurlaritzako Lan Osasun eta Gizarte Segurantzza Sailak onetsiak izan dira, eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistro Ofizialean inskribatuak daude 69 G zk.arekin eta G-20068094 IFK zk.arekin.

Eroski, S.Coop.ek erakunde horiei laga dizkie bere Estatutuetan eta MONDRAGONeko Biltzar Arauetan jasotzen diren ahalmenak, eta, Xedapen honen ondorioz, barne-arauen mailara iristen direnak.

Eroski S.Coop. Banaketaren Dibisioari atxikia dago, eta horren konfigurazioa, MONDRAGONeko Biltzar Arauetako 56.8 artikuluan jasotakoaren arabera, Erkop S.Coop. eta Eroski S.Coop.en arteko barne-akordioaren arabera bideratzen da.

## Lehen Xedapen Iragankorra

Estatutuuetako 45. eta 46. artikuluetan aipatutako lan-bazkideen oinarri konputagarria ezartzeko hiru urteen konputua progresiboa izango da, 2022ko Batzar Nagusian erabakiko den 2021eko ekitaldiko emaitzen banaketarekin bete-betean aplikatu ahal izateko, honako lauki honetan jasotzen den moduan:

Asamb.	Emaitzak	Oinarri orokor konputagarria
2020	2019	2019
2021	2020	2019 + 2020
2022	2021	2019 + 2020 + 2021

# Estatutu Sozialak

2025Ko ekainaren 2an  
Delegatuen Batzar  
Nagusian onetsiak